

**EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen
Arloko Plana**

Behin betiko onarpena

II. LIBURUKIA. Diagnostikoa

Martxoa 2007

1	SARRERA	4
2	ITSASERTZEKO EREDU JURIDIKO ADMINISTRATIBOTIK ETA ESKUMENETATIK ERATORRITAKO ARAZOAK	4
2.1.1	<i>Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa mugatzeari eta legezko zortasunak aplikatzeari dagozkionak.....</i>	<i>4</i>
2.1.2	<i>Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren mugatzeek gaur egun duten egoera ...</i>	<i>5</i>
2.1.3	<i>Itsasertzaren kudeaketa administratiboari dagozkionak.....</i>	<i>6</i>
3	LEHORREKO INGURUNEA	7
3.1.1	<i>Euskal itsasertzaren erabilera ekonomikoa</i>	<i>7</i>
3.1.1.1	<i>Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionala: Nerbioi ibaiaren itsasadarra, Barbadun ibaiaren itsasadarra eta Getxo eta Plentziako itsasertzeko zerrenda</i>	<i>7</i>
3.1.1.2	<i>Mungiako Eremu Funtzionala: Butroi ibaiaren itsasadarra.....</i>	<i>8</i>
3.1.1.3	<i>Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionala: Matxitxako lurmuturretik Artibai ibaiaren bokalera</i>	<i>8</i>
3.1.1.4	<i>Debabarreneko Eremu Funtzionala: Ondarroa - Mutriku Saturraran.....</i>	<i>9</i>
3.1.1.5	<i>Urola-Kostako Eremu Funtzionala.....</i>	<i>10</i>
3.1.1.6	<i>Donostia-Beterriko Eremu Funtzionala.....</i>	<i>10</i>
3.1.2	<i>Euskal itsasertza plangintza-tresnek finkatutako lurraldearen antolamendu-ereduan 12</i>	
3.1.2.1	<i>EAEko lurraldearen antolamendu-eredua</i>	<i>12</i>
3.1.2.1.1	<i>LAAk antolatzekeo tresna gisa</i>	<i>12</i>
3.1.2.1.2	<i>Lurraldearen zatiko planak (LZPak).....</i>	<i>13</i>
3.1.2.1.3	<i>Udaletako hiri-plangintza.....</i>	<i>14</i>
3.1.3	<i>Itsasadarren ertzei buruzko diagnostikoa</i>	<i>14</i>
3.1.3.1	<i>Bidasoako estuarioa.....</i>	<i>15</i>
3.1.3.2	<i>Urumeako estuarioa.....</i>	<i>15</i>
3.1.3.3	<i>Oriako estuarioa</i>	<i>16</i>
3.1.3.4	<i>Urolako estuarioa</i>	<i>16</i>
3.1.3.5	<i>Debako estuarioa</i>	<i>17</i>
3.1.3.6	<i>Artibaiko estuarioa</i>	<i>17</i>
3.1.3.7	<i>Leako estuarioa</i>	<i>18</i>
3.1.3.8	<i>Butroiko estuarioa</i>	<i>18</i>
3.1.3.9	<i>Barbadungo estuarioa.....</i>	<i>19</i>
3.1.4	<i>Antolamendu-ereduak edo plangintzak sortutako lurralde-eraginak</i>	<i>19</i>
3.1.4.1	<i>Antolamendu-ereduak sortutako lurralde-eraginak</i>	<i>19</i>
3.1.4.2	<i>Plangintzak sortutako eraginak</i>	<i>21</i>
3.1.4.2.1	<i>Lurraldearen zatiko planen antolamendu-ereduak sortutako eraginak</i>	<i>21</i>
3.1.4.2.2	<i>Udal-plangintza hiritarrak sortutako eraginak</i>	<i>23</i>
3.1.5	<i>Azpiegitura-gaietan aurreikusitako jardunak (saneamendua eta arazketa izan ezik) 24</i>	
3.1.5.1	<i>Errepideak</i>	<i>25</i>
3.1.5.2	<i>Portuak</i>	<i>26</i>
3.1.5.2.1	<i>Plangintza.....</i>	<i>26</i>
3.1.5.2.2	<i>Pasaiaiko kanpoko portuaren proposamena</i>	<i>26</i>
3.1.5.3	<i>Bideratzeak.....</i>	<i>26</i>
3.1.5.4	<i>Trenbidea.....</i>	<i>27</i>
3.1.6	<i>Lehorreko ingurunean eragina duten esku-hartzeen sintesia eta balorazioa</i>	<i>28</i>
3.1.7	<i>Babestutako eta katalogatutako espazio naturalak.....</i>	<i>31</i>
3.1.8	<i>Natura 2000 sarea.....</i>	<i>33</i>
3.1.9	<i>Kalte errazeko zonak.....</i>	<i>34</i>

4	ITSAS INGURUNEA.....	36
4.1.1	<i>Itsasertzeako uren eta jalkinen kalitatearen egoera orokorra: estuarioetako eta kostaldeko ura eta jalkinak</i>	36
4.1.1.1	Uraren kalitatea	36
4.1.1.2	Jalkinen kalitatea	37
4.1.2	<i>Saneamenduaren eta hondakin-uren arazketaren inguruko jardunak.....</i>	38
4.1.2.1	Saneamenduan eta arazketan esku hartzeke politikak.....	38
4.1.3	<i>Agregakinen erauzketa eta dragatzeak</i>	39
4.1.4	<i>Itsas ingurunean eragina duten esku-hartzeen sintesia eta balorazioa</i>	40
4.1.4.1	Hautemandako esku hartzeak unitate fisiografikoen arabera	40
4.1.4.2	Jardun-mota jakin batzuen ingurumen-eraginaren balorazioa.....	43
4.1.4.3	Ondorioak.....	45
4.1.5	<i>Interes naturalistiko berezia duten espazioen ezaugarriak eta mugatzeak.....</i>	46

1 SARRERA

Aurreko kapituluetan interesekotzat jo diren alderdiak, lehorreko inguruneak nahiz itsas inguruneak, deskribatu eta balioetsi ditugu. Horiek gainera, ingurune biofisikoari begira nahiz gizarte, ekonomia eta lurraldeari begira aztertu ditugu, Itsasertzeako LAPak lortu nahi dituen helburuen esparruan.

Deskribapen hori ez da deskribapen aseptikotzat (informazioa emateko deskribapen soiltzat) jo behar, eta ezin da halakotzat jo, gainera, agiriaren zati horretan zehar balorazioak egin ditugulako. Horiek ere diagnostikoaren alderditzat jo behar dira. Izan ere, egiaz halaxe dira.

Diagnostikoaren kapitulu honetan dagoeneko aurreratu ditugun balorazio horiei helduko diegu berriz, eta gehiago zehaztu eta zabalduko ditugu. Horretarako, gaika sailkatuko ditugu txostena idatzi duen taldeak azpimarratu beharrekotzat jo dituen alderdiak, hain zuzen ere, orain arte LAPa idazteko garaian egindako lanaren ondorio orokortzat jo ditzakegunak.

2 ITSASERTZEKO EREDU JURIDIKO ADMINISTRATIBOTIK ETA ESKUMENETATIK ERATORRITAKO ARAZOAK

Gaur egun indarrean dagoen **uztailaren 28ko 22/1988 Legeak, Kostaldeei buruzko Legeak**, eta berori garatzen duen araudiak arautzen du itsasertzaren kudeaketa administratiboa. Lege honen oinarritzko arautzea 100 m-ko itsasertzeako zerrendari lotutakoa da, eta gisa horretan bereizi egiten digu itsasoko eta lehorreko jabari publikoa osatzen duten ondasunak eta berorren babes-zortasunekoak diren eta publiko nahiz pribatu izan daitezkeenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko administrazioez gain, foru-aldundiek eta tokiko administrazioek ere hartzen dute esku Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean. Itsasertzaren gaineko funtsezko eskumen horiek hainbat arazo sortzen dituzte, eta horien artean honakoak azpimarratuko genituzke, beren garrantzia dela eta.

2.1.1 Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa mugatzeari eta legeko zortasunak aplikatzeari dagozkionak

22/1988 Legearen, Kostaldeei buruzkoaren, 3.1.a) artikulua arabera, "*estatuko itsasoko eta lehorreko jabari publikoko ondasun izango dira itsasoko eta itsasadarretako ertzak, eskoraturako itsasbeheraren edo maximo ekinokzialaren eta ekaizik handienetan olatuak iristen diren mugaren arteko itsasoko eta lehorreko zona*

edo espazioa barne (...). Zona hori ibaien ertzetan barrena ere zabaltzen da, itsasaldien eragina nabaritzen den lekuraino”(...).

Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babesteko arrazoiak direla eta, berorren mugakide diren lurrek ere mugak eta zortasunak dituzte. Legearen II. tituluko 23. artikuluari jarraiki, babes-zortasuna 100 m-ko zona batean izango da, itsasertzaren barnealdeko mugatik barrualderantz neurtuta. Dena dela, zona horren hedadura **Estatuko Administrazioak zabaldu ahal izango du, dagokion autonomia-erkidegoarekin eta udalarekin adostuta, gehienez ere beste 100 m, zortasunaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa bada**, delako itsasertzaren zatiaren berezitasunak aintzat hartuta.

Itsasertzaren eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren mugatzeen gaineko eskumenak Estatuko Administrazioak izango ditu, 22/1988 Legearen, Kostaldeei buruzkoaren, 11. artikuluari jarraiki.

Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren mugakide diren lurren gaineko zortasun juridikoak aplikatzeari dagokionez hauteman ahal izan ditugun arazoak ondorengo alderdien ingurukoak dira:

- Legeak agindutakoa aplikatzea itsasoko eta lehorreko jabari publiko izateari uzten dion eta jabari publiko hidrauliko bihurtzen den tokian; hau da, itsasadarraren eta ibaiaren arteko aldea.
- Babes-zortasuneko zona mugatzeko lurzorua hiritza-sailkapenaren data. Izan ere, Kostaldeei buruzko Legearen xedapen iragankorretako hirugarrenak dioenez, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri programatutzat edo urbanizatzeako egokitzat jo diren eta legea indarrean sartu zenean behin betiko onartutako zatiko plana zuten lurrak bertan finkatutako zortasunen mendekoak izango dira. Salbuespen gisa, babes-zortasunaren zabalera 20 m-koa izango da, 100 m-koa izan beharrez, lurzoru urbanizaezinari edo lurzoru urbanizagarri programatu gabeari dagokion bezala (hori 200era zabal daiteke).

2.1.2 Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren mugatzeek gaur egun duten egoera

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzari dagokionez, Kostalde Zuzendaritza Nagusiak itsasoko ertzak, itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta babes-zortasuneko zona mugatu ditu.

Oro har, dagoeneko egin dira mugatzeko proiektuak ia euskal itsasertz osoan. Egindako neurketen arabera, 454 km lineal ingurukoa da mugatu beharreko kostaldea, eta horietatik 397 km inguruk dituzte behin betiko mugatzeak. Beste 51 km-k, berriz, behin-behinekoak egin dituzte eta 6 bat km izango ditugu mugatu gabe.

- Zehatzago esateko, mugatzeko proiekturik ez duen itsasertz-zati bakarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Kostaldean Mugaketako Lurralde Zerbitzuek emandako dokumentazioaren argitara, Gornizko Astondoko hondartzatik Gornizko Plentziako hondartzaraino bitartekoa da, Bizkaian.

2.1.3 Itsasertzaren kudeaketa administratiboari dagozkionak

Abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuaren, Kostaldeein buruzko Legea garatzeko eta gauzatzeko araudia onartzen duenaren, 48.1 artikulua arabera, eta Konstituzio Auzitegiaren 112/92 Epaiaz geroztik, **autonomia-erkidegoek izango dute itsasoko eta lehorreko jabari publikoko babes-zortasuneko zonan erabilerak baimentzeko eskumena**, baita lurreko hondakin-urak itsasora isurtzekoa ere, araudi horren 207. artikulua dioenari jarraiki. Izan ere, berorri jarraiki **autonomia-erkidegoek** izango dituzte itsasertza, portuak, hirigintza, itsasorako isuria eta Kostaldeein buruzko Legearen esparruarekin zerikusia duten gainerakoak antolatzeako eskumena, betiere beren autonomia-estatutuen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoaz ari garela, abuztuaren 30eko 216/1996 Dekretua onartzearen bidez eskualdatu ziren eskumenak. Berorren bidez onartuz zen *1996ko uztailaren 29ko Batzorde Mistoaren Erabakia, ingurumen eta isurketen inguruko Estatuko Administrazioaren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa*.

Aipatutako erabaki horren arabera, honakoak dira, besteak beste, autonomia-erkidegoak bere egiten dituen funtzioak, lehen Estatuaren eskumenekoak zirenak: *“isurtzeak eta, hala badagokio, beharrezko diren obrak eta instalazioak baimentzea eta ikuskatzea, euskal itsasertzeko uretan, itsasoko eta lehorreko jabari publikoa okupatzeko emakiden inguruko eskumenei kalterik egin gabe, horiek Estatuko Administrazioari baitagozkio”*.

Hori dela eta, lehorretik itsasorako isurketen babes-zortasuneko zonetako baimenen espedienteak autonomia-erkidegoak tramitatzen ditu, Kostaldeein buruzko Legearen 57, 64 eta 65. artikuluetan ezarritako eta araudiko 150. artikuluan eta aurrez aipatutako Eusko Jaurlaritzaren dekretuan garatutako prozedurari jarraiki.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 196/1997 Dekretua onartu du, hain zuzen ere, *itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak emateko jardunbidea ezartzeko dena*, itsasadarretako isurketak barne direla.

Kostaldeein buruzko Legeak araututako esparruen baitan, badira autonomia-erkidegoaren eskumenekoak bakarrik diren zenbait eskumen-eremu, honakoak esate baterako: itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren zortasun-zonari dagozkion baimenak eta zaintza, lurretik itsasorako isurketen baimena eta zaintza eta itsasertzeko uren kalitatearen kontrola. Beste eremu batzuetan, aldiz, eskumena Estatuarena da, eta autonomia-erkidegoaren parte-hartzea eskatzen da. Hori da, esate baterako, itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren behin-behineko mugatzeen inguruko nahitaezko txostenen eta zona horretan Estatuak ematen dituen baimenen eta egiten dituen lagapenen inguruko txostenen kasua.

Garatu beharreko jardun horiek guztia egin ahal izateko administrazio-kudeaketari dagokionez, prozedura konplexua izaten da eta asko luzatzen da. Hori dela eta, bi administrazioen arteko sinkronia ezin hobea ezinbestekoa da, itsasertzaren kudeaketarekin zerikusia duten erantzukizunak eta lanerako ildoak betetzeko.

Hori kontuan izanik, egokia litzateke Eusko Jaurlaritzaren eta Kostalde Zuzendaritza Nagusiaren arteko hitzarmena egitea, itsasertzean eragiten duten plangintzako tresna guztiei buruzko txostena egiteko (horien artean ditugu lurraldearen arloko planak, lurraldearen zatiko planak, plan orokorrak, arau subsidiarioak eta abar), hasierako onespena baino lehen, horrek aukera eskainiko lukeelako Zuzendaritzarekin alde zurretik adosteko ondoren emango diren baimenak eta lagapenak.

3 LEHORREKO INGURUNEA

3.1.1 Euskal itsasertzaren erabilera ekonomikoa

Ondoren euskal itsasertzaren erabilera ekonomikora hurbilduko gara, lurralde-esparru horrek eskaintzen dituen baliabideen ustiapenaren berri izateko.

Azalpena hobeto egin ahal izateko, LAAek lurraldea banatzeko erabilitako eremu funtzionalen eredua egin dugu geure.

3.1.1.1 Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionala: Nerbioi ibaiaren itsasadarra, Barbadun ibaiaren itsasadarra eta Getxo eta Plentziako itsasertzeko zerrenda

Eremu hiritarra da nagusiki, Bilbaoko eremu zentralaren inguruan garatutako konurbazio jarraitua osatu duena. Bilbaoko itsasadarra tentsio handiko ingurunea da, bai hiriaren ikuspegitik, bai industriaren eta portuaren ikuspegitik.

Butroi ibaiaren estuarioak ere zuzeneko biztanleria-presio handia jasaten du, Gorniz, Plentzia eta Sopelanako bizitegi-nukleoak garatzearen ondorioz.

Jarduera ekonomikoei begiratuz gero, Bilbaoko portuak interes orokorra pizten du eta bertako jarduera oso bizia da. Gaur egun kanpoaldeko zatia zabaltzeko fasean dago. Azpimarratzekoa da, halaber, Plentziako arrantza-portua.

Muskizko itsasadarraren barnealdearen zati batean Petronorren findegia dugu.

Itsasertzeko udalerriek aisia-eskaintza handia dute. Getxok, esate baterako, Azkorri, Arrigunaga eta Ereaga hondartzak ditu, baita orain gutxi eraikitako kirol-portua ere. Sopelanan azpimarratzekoak dira Arrietara, Atxabiribil eta Soladontes. Gorniz eta Plentziako hondartzak ere nabarmentzekoak dira. La Arena hondartzan, Barbadun ibaiaren itsasadarraren kanpoko aldean, bainulari eta surfari ugari ibiltzen dira.

Arrantza-baliabideei dagokienez, kostaldearen aurrean, Villano lurmuturraren eta Luzero lurmuturraren artean, arrantza-toki garrantzitsuak daude, Abran hain zuzen ere. Luzero lurmuturraren inguruan garrantzia du gelidium ustiapenak, erauzpen-modalitatea duenak.

Plentziako itsasadarraren barnealdean akuikultura egiten da eta ingurune hori B motako gisa dago sailkatuta, itsaskiak harrapatzeke eta akuikultura egiteko. Horretan salbuespen dira C motakotzat jotako zenbait eremu, portuaren inguruan daudenak eta barnealdean daudenak, hain zuzen ere. 1993ko¹ uztailaren 2ko Aginduari jarraiki, B motako zonatzat joko dira bertatik ateratako moluskuak bizirik merkaturatu aurretik garbitzeko prozesu batetik igarotzea ezinbestekoa bada. C motakotako zonetan, aldiz, ezingo da itsaskirik harrapatu eta bertan ezingo dira itsaskiak hazi, bertan oso handiak izaten direlako koliformeen eta metal astunen kontzentrazioak. Gisa honetako zonetan neurri irmoak hartu beharko dira ingurunea garbitzeko eta bertako sailkapena aldatu ahal izateko.

3.1.1.2 Mungia Eremu Funtzionala: Butroi ibaiaren itsasadarra

Eremu funtzional honetako itsasertza Villano lurmuturraren eta Matxitxako lurmuturraren arteko zatiak osatzen du.

Inguru honetako biztanleria txikia da eta landa-izaera duten udalerrri txikiak ditugu bertan. Zona honetako itsasertzeko udalerrri gehienak Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean hartu dituzte barne Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, bizitegi-ingurune gisa espezializatu direnez, eremu horrekin dutelako erlazio funtzional handiagoa.

Ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, azpimarratzekoak dira Lemoizko zentralaren instalazio zaharrak, Basordas izeneko senaian. Egun instalazio horiek gas likidotua lurruntzeko instalazio bihurtzeko proiektua dago.

Nabarmentzekoak dira, halaber, Bakio eta Armintzako arrantza-portuak. Bi herri horien artean gelidium ustiapenak egiten dira, erauzpen-modalitateari jarraiki. Ekialdeko zatian, Villano lurmuturretik Etxangarri lurmuturrera, ugariak dira Abrako arrantza-tokiak, eta ekialderantz, berriz, nasako arrantza-tokiak.

Aisiako eskaintza gisa nabarmentzekoak dira Armintza eta Bakioko hondartzak.

3.1.1.3 Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionala: Matxitxako lurmuturretik Artibai ibaiaren bokalera

Eremu funtzional honen itsasertzeko esparrua batez ere Gernikako eskualdeak osatzen du, Oka ibaiaren itsasadarraren erdialdeko zonetan eta kanpoaldean. Hor ditugu, halaber, Artibai ibaiaren arroko kostaldeko udalerrriak.

¹ 1993ko uztailaren 2ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, uren kalitateari eta horrek akuikulturari eta itsaskien harrapaketa dituen ondorioei dagokienez, Euskal Autonomi Elkarteak itsasertzeko itsas aldean sailkapena ezartzen duena.

Zona honi dagokionez, ezinbestean azpimarratu behar dugu lehen sektoreak beretzen duen pisua, arrantzaren sektorea baita nagusi biztanleria handiena duten lau udalerritatik hirutan, hau da, Bermeo, Ondarroa eta Lekeition.

Bide horretatik, ekonomia-jarduera gisa azpimarratzekoak dira bereziki arrantzarekin lotura dutenak. Nabarmentzekoak dira Bermeo, Mundaka (itsasadarraren irteeran), Lekeitio eta Ondarroako arrantza-portuak.

Oka ibaiaren itsasadarraren barnealdean azpimarratzekoak dira Muruetako ontziolak. Noizean behin dragatzeak egiten dira itsasadarrean, ontziola honetatik irteteko kanala hobetzeko xedearekin.

Mundaka B zona gisa dago sailkatuta itsaskiak harrapatzeari eta akuikulturari dagokionez. Haatik, Muruetako ontzioletatik hasi eta Gernikara arteko zatia C zonatzat jo da, baita Txatxarramendi uhartearen eta itsasadarraren mendebaldeko kostaren arteko eremua ere. Lekeitioko itsasadarraren barnealdeko zonan ere egiten da jarduera hori. Zona hau ere C motakotzat jo da itsaskiak harrapatzeari eta akuikulturari dagokionez. Ogellako hareatzan akuikulturako instalazio txiki bat nabarmentzen da.

Kanpoaldeko arrantza-jarduera handia da eta bertan Ogoño eta Matxitxako arteko eta Lekeitioko kostaldearen aurreko mailasaretarako arrantza-tokiak nabarmentzen dira. Matxitxako eta Bermeo aurreko kostetan eta Amari lurmuturrean, aldiz, nasako arrantza-tokiak dira azpimarragarrienak.

Matxitxako lurmuturraren aurrean gas naturaleko plataforma zahar bat dago, Gaviota plataforma, hain zuzen ere, ur aspiko gas-hodi baten bidez lotzen zaiona lurrari.

Jarduera turistikoak ere badu indarra, bertako zenbait gune oso erakargarriak direlako. Horien artean dugu Urdaibai, esate baterako, baita itsasertzeko udalerrri batzuen aisia eta astialdirako eskaintza ere. Bide horretatik, Oka ibaiaren itsasadarraren ezkerrealdean azpimarratzekoak dira Toña eta San Antonio hondartzak, Sukarrietan, eta Laidatxu Mundakan. Itsasadarraren kanpoaldean, ezkerrealdeko ertzean, Laidako hondartza dugu, surfari ugari erakartzen dituen. Elantxobek eta Eak ere badute hondartza. Lekeitio turismorako ingurune garrantzitsua da, bainurako ekipamenduak dituelako eta ontziek aingura botatzeko toki dutelako. Arrantza-portua ere badu. Karraspio eta Isuntza hondartzak ditu, uhartea eta lurra lotzen dituen eta gainditu daitekeen harresiak bereizten dituen.

3.1.1.4 Debabarreneko Eremu Funtzionala: Ondarroa - Mutriku Saturrarán

Eremu funtzional honen itsasertzeko esparrua txikia da, bi lurralde historikoen arteko mugan kokatzen dena. Itsaslabarrek osatutako itsasertz eremu malkartsuak mugatzen du eta Deba, Mutriku eta Saturrarango hondartzek bakarrik eteten dute eremu malkartsu hori.

Mutrikuk arrantza-portu txikia du. Azpimarratzekoak dira Aiztandi lurmuturreko nasatarako eta mailasaretarako arrantza-tokiak.

Aisiarako eskaintzari begira, Debako estuarioa maiz erabiltzen da itsasontziak ainguratzeko eta amarratzeko. Mutriku nabarmentzekoak dira portuko eta Zazpi Hondartzak izeneko ingurune hondartzak. Mutriku eta Ondarroa artean Saturran eta Arrigorri hondartzak aipa ditzakegu. Horien kalitatea kaskarra da, hiri-isurketen eta kontserba-industrien isurketen ondorioz.

3.1.1.5 Urola-Kostako Eremu Funtzionala

Itsasertzeko esparruak Oria eta Urola ibaien bokaleen arteko itsasertzeko zerrenda hartzen du bere baitan.

Zona honetako ekonomia-jarduera Zarautz eta Zumaia hiriguneen inguruan antolatzen da.

Arrantza-jarduera oso garrantzitsua da, batez ere Zumaia, Orio eta Getariako arrantza-portuetan. Urola ibaiaren itsasadarrean, azpimarratzekoa da Balenciaga ontziola. Orrua senaian, Getaria eta Zumaia bitarteko itsaslabarretan, erreboiloak gizentzeko enpresa bat dago. Getariako San Antonen aurrean, berriz, mailasaretarako arrantza-toki garrantzitsua dago. Bestalde, nasatarako arrantza-tokiak ditugu Zumaiarainoko itsaslabarren zonan. Orioko kostalde arrokatuan, aldiz, geliduma ateratzen dute, erauzpen-modalitatearen bidez. Horrezaz gain, mailasaretarako eta nasatarako arrantza-tokiak daude.

Turismo-jarduerari erreparatuz gero, zona honetako eskaintza oso esanguratsua da eta bertako zerbitzuak Zarautzen inguruan egituratzen dira. Zumaian nabarmentzekoa da Itzurun hondartza. Getariak ere badu hondartzarik, Malkorbe eta Gaztetape, hain zuzen ere. Malkorbe hondartzan eta Getariako portuan jende ugari ibiltzen da udan. Getariako portuak kirol-kaia du.

Zarautzek du euskal kostaldeko hedadura handieneko hondartza. Alabaina, bertako uraren kalitatean eragina dute, ekialdetik, Inurritza erretenak eta Mollarriko itsaspeko hustubideak isurtzen dituzten hondakin-urek. Bertako uretan surfa egiten dute.

Oriok, aldiz, Antilla eta Orizabar hondartzak ditu. Portua arrantzako eta aisiarako ontziak ainguratzeko erabiltzen da.

3.1.1.6 Donostia-Beterriko Eremu Funtzionala

Donostialdea

Itsasertzeko esparru honetan sartzen dira Oiartzun ibaiaren bokalea (Pasaiako badian) eta Urumea ibaiaren beheko ibilera, Kontxako badiako bokalearen inguruan, eta Orio udalerriarekiko mugaraino iristen da.

Pasaiako badiak industria-presio handia jasaten du, Pasaiako merkataritza-portuko interes orokorreko jardueraren ondorioz. Bertako jarduera honakoa da nagusiki: txatarra deskargatzea, siderurgiako produktuak (xaflak, autoak...) ontziratzea, ontziak konpontzea eta arrantzako produktuak merkaturatzea.

Arrantza-jarduera oso garrantzitsua da. Higer lurmuturraren eta Kontxako badiaren artean ditugu euskal kostaldeko mailasaretarako arrantza-tokirik garrantzitsuenak. Kostaldearen ondoan badira nasarako arrantza-tokiak ere, batez ere Pasaiaiko badiaren alde banatan.

Portuak ainguratzeko 3 eremu ditu, aisiarako ontzietarako: San Juan, Ondartxo eta Txintxerpe. Guztira 180 ontzirentzako lekua. Kanpoaldeko eremuak arrantza-zale ugari erakartzen ditu. Uretako kirolei dagokienez, nabarmentzekoa da arraunketarako zaletasun handia (batez ere traineruetarakoa), lau elkarte garrantzitsu ibiltzen baitira itsasertz honetan.

Donostiak ez du nabarmentzeko industria-jarduerarik, garai bateko industria-ehunak batez ere bizitegi-erabileretara eta hirugarren sektoreko erabileretara birmoldatu direlako.

Arrantza-jarduera, berriz, nabarmena da, batez ere Donostiako arrantza-portuan. Igeldotik Orioko hareatarainoko itsaslabarretan oso arrantza-baliabide ugariak daude. Itsaski-bilketa arautzen duen dekretuaren arabera, aipatutako inguru horretan bakarrik arrantza daitezke itsaskiak libreki euskal kostaldean. Gelidiuma ere asko ustiatzen da, batez ere Lur Zuria inguruan. Zona honetan erreboiloa gizentzeko enpresa bat ere bada. Kostaldetik hurbil nasatarako arrantza-toki garrantzitsua dago.

Gelidiuma Zurriolan eta Kontxan ere arrantzatzen da, arrastearen bidez, arrantzarako itsasontziekin.

Donostia oso gune garrantzitsua da turismorako eta bertako aisia- eta jolas-eskaintza adierazgarria da. Zurriola (bertan bainua hartzeaz gain surfa egiten dute), Kontxa eta Ondarreta hondartzak ditu. Kontxa da euskal kostaldeko aisiarako gune nagusietako bat. Bertan bainua har daiteke, itsasontziak aingura daitezke eta uretako kirolak egin daitezke. Ondarretak zein Kontxak bandera urdina dute, bertako zerbitzu bikainen adierazle. Arrantza-portuak kirol-nasa ere badu.

Bidasoa Behea

Txingudiko badiaren lurralde-esparrua (Bidasoaren itsasadarra) eta Jaizubia haran txikia hartzen ditu bere baitan, baita Jaizkibel mendiaren ingurua ere. Giza eta industria-presio handia du zona honek, eta presio hori guztia Hondarribia eta Irun herriguneetan kontzentratzen da.

Irun udalerriak industria-garapen handia du. Hondarribiak, aldiz, ez du ia industria-jarduerarik, bizitegi-hiri eta turismo-zerbitzuen hiri delako. Bertako jarduera hirugarren sektorean eta arrantzan dago oinarrituta.

Hondarribiko merkataritza-portuaz gain, Txingudiko badia da euskal kostaldean ainguratzeko eremu nagusia, bertan 600 itsasontzi inguru aingura daitezke eta.

Hondarribia inguruan ezin da itsaskirik harrapatu, uraren kalitate txarra dela eta. C motako zonatzat jo dute, moluskuen produkziarako.

Jaizkibelgo itsaslabarretan, batez ere Asabaratzan, dago EAEko *gelidium sesquipedale* biomasarik handiena eta, hori dela eta, interes handikoa da arrantza-baliabide gisa. Horiek zutik harrapatzen dituzte, teleferikoekin lagunduta.

Horrezaz gain, itsaslabar horren aurrean, Higer lurmuturraren inguruan, mailasaretarako eta nasatarako arrantza-tokiak ditugu, itsasertzetik hurbilen dauden zonetan.

Turismo-jarduerari dagokionez, Hondarribiko hondartza da itsasertz kantauriarrean gehien erabiltzen dena. Berorren aurrean 125 itsasontzi ainguratzeko eremua dago, klub nautikoaren inguruan. Txingudi inguruko edertasunak bisitari ugari erakartzen ditu.

3.1.2 Euskal itsasertza plangintza-tresnek finkatutako lurraldearen antolamendu-ereduan

3.1.2.1 EAEko lurraldearen antolamendu-eredua

3.1.2.1.1 LAAk antolatzeko tresna gisa

EAEEn ezarritako lurralde-antolamendurako politika eta horrek Itsasertzeko LAPa idazteko garaian duen eragina aztertu ahal izateko, lehenik eta behin 1997ko otsailean onartutako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei erreparatu behar diegu.

Alabaina, egia esan, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek beren indar arautzailea galdu dute neurri batean, hasierako aurrerapen-agiriak egin zirenetik hasi eta testuak azkenean behin betiko onartu arteko tarte horretan. Indar-galera hori plangintza orokorragoen mesederako izan da. Baina, hala eta guztiz ere, egun idatzita dauden bezala, erkidegoa antolatzeko eredu argia eskaintzen dute, baita jarrera garbia ere, besteak beste euskal itsasertzari eragiten dioten auzi estrategikoetan.

Plan honen justifikazio-memoria eta informazio-memorian zehar ikusi ahal izan dugu zein diren itsasertzean zuzenean eragiten duten antolamendu-ereduaren alderdiak. Ingurune Fisikoaren Antolamendurako 8. Artezpideaz gain (bertan ezartzen eta definitzen dira zenbait antolamendu-kategoria, baita erabilerak arautzen ere), azpimarratzekoa da LAAek bigarren etxebizitzaren eta baliabide turistikoaren antolamenduaren inguruan adierazitako jarrera. Izan ere, bertan, lehenak garatzea proposatzeaz gain, gisa honetako berariazko orientazioak eskaintzen dira:

- turismo-azpiegitura sortzea Donostia-Beterriko eta Urola-Kostako eremu funtzionaletan.
- Lekeitio udalerrria sustatzea erabilera horiek har ditzan, Ispaster eta Mendexarekin batera.
- sorrera Getxon izango duten eta kostaldearekiko paralelo izango diren bigarren etxebizitzetarako itsasertzeko zonak garatzea.

- kostaldeko ibilbideak egokitzea ondorengo lekuetan:
 - * Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Ispaster, Ibarrangelu.
 - * Getxo, Plentzia,
 - * Gernika, Bermeo, Bakio.
 - * Deba, Zumaia, Getaria, Zarautz

Hainbat alderdi garrantzitsuri —portu-azpiegiturari, esate baterako— dagokionez, Bermeo, Ondarroa, Getaria, Hondarribia, Zumaia eta Orio bezalako portuak handitzearen eta horien kirol-erabileraren inguruko jarrera ere adierazten du.

Hortaz, LAAk lehen mailako erreferentzia izango dira eta horiek aintzat izan beharko dituzte legeak aipatzen dituen lurralde-antolamendurako tresna guztiek (LZP eta LAPek). Izan ere, berorien bidez beheagoko mailako tresnek (LZP eta LAPek) osatu behar duten (eta ez zalantzan jarri behar duten) lurralde-eredua sustatzen da.

3.1.2.1.2 Lurraldearen zatiko planak (LZPak)

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak nahiz Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek berek zeregin garrantzitsua ematen diete lurraldearen zatiko planei (LZPei), LAAek beren esparruan ezarritako lurralde-eredua zehazteko eta garatzeko garaian. LZPek lurraldearen arloko planek (LAPek) baino maila altuagoa dute eta, noski, baita udaletako hiri-plangintzena baino altuagoa.

Gaur egun, ondorengo lurraldearen zatiko planak ari dira bideratzen, zein bere fasean, itsasertzeko esparruari begira:

- Bilbaokoa, Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalari dagokiona. Hasierako onspena BFaren 2003ko uztailaren 22ko Erabakiaren bidezkoa izan zen.
- Gernika-Markina, Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionalari dagokiona. Berorren aurrerapena idatzita dago.
- Mungia, Mungiako Eremu Funtzionalari dagokiona. Berorren aurrerapena idatzita dago.
- Donostialdea-Bidasoa Behea, Donostia-Beterriko Eremu Funtzionalari dagokiona. Berorren aurrerapena idatzita dago.
- Debabarrena, Debabarreneko Eremu Funtzionalari dagokiona, apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuaren bidez behin betiko onartua eta 2005eko ekainaren 6ko EHAAren argitaratua.

- Urola Kosta, Urola-Kostako Eremu Funtzionalari dagokiona, otsailaren 21eko 32/2006 Dekretaren bidez behin betiko onartua.

3.1.2.1.3 Udaletako hiri-plangintza

Udaletako hiri-plangintza da plangintzaren prozesuko azkeneko maila. Hiri-plangintzak LAAetan eta horiek garatzen dituzten tresnetan —alegia, lurraldearen zatiko planetan eta lurraldearen arloko planetan— xedatutakora egokitu behar du.

Udal-planek gutxitan aipatzen dituzte lurraldea antolatzeko tresnek egindako zehaztapenak edo horiek dituzten estrategiak. Orain gutxi idatzitako planek bakarrik dituzte LAAen xedapenen edo lurraldearen zatiko nahiz arloko planen inguruko aipamenak.

Batzuetan koordinaziorik eza ere izaten da. Goragoko mailako plangintza-tresnak onartzeko prozesuak geldoak izateak justifikatzen du neurri batean koordinaziorik ez izatea. Izan ere, LAAk ez dira indarrean egon 1997ko otsailean behin betiko onartu ziren arte eta lurraldearen zatiko plan bakar bat ere ez da behin betiko onartu oraindik. Hortaz, ez dira ezinbestean bete beharrekoak.

Aurrerapena edo behin-behineko onespena duten LZPen agiriak plan adierazle bihurtzen dira eta foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak maila estrategikoan hartzen dituzte aintzat beren arloko politikak garatzeko garaian. Gainera, udaletako hiri-plangintzaren bidez gauzatzen diren udal-politiketan eragiten dute, lurraldearen inguruko irizpideak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen kudeaketaren bidez edo foru-aldundiek planak behin betiko onartzeko erabakien bidez ezarriz.

Tresna horiek idatzeko/onartzeko prozesuak arintzeak aukera eskainiko digu horien zehaztapenak udaletako hirigintza-politiketan barne hartzeko. Izan ere, hala ez bada, ereduaren plangintzak baliorik gabe geldituko dira, informazioa zaharkituta egongo delako eta egin beharrekoa eginda egongo delako.

Alabaina, egoera orokor horrek badu salbuespen bat. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbarako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren kasua dugu. Hori bete-bete hartu dute barne beren hiri-plangintzen zehaztapenetan berorren lurraldearen baitako udalerriek.

3.1.3 Itsasadarren ertzei buruzko diagnostikoa

I. liburukian, informazio-memoria deiturikoan, jada adierazi dugunez, itsasadarren ertzak itsasertzeko lehorreko inguruneke gune bereziak dira. Horien berezitasuna bi arrazoiri zor zaio: trantsizioko inguruneen ertz izateari —itsasadarraren, balio ekologikorik handiena duen espazioaren, ertz izateari— nahiz gizakiak ertz horiek erabiltzeari eta bertan jarduteari.

Ondorengo ataletan, espazio berezi horiek, Informazio-memoriaren 2.2.2 atalean deskribatu ditugun trantsizioko inguruneei dagozkienek, duten egoeraren deskribapen

laburra egingo dugu, Nerbioi-Ibaizabalgo, Oiartzungo eta Okako estuarioak izan ezik; izan ere, lehenengo biak, gehienez, ez dira plan honen antolamendu-esparruan sartzen eta Okako estuarioaren araudiak Urdaibaiko Biosferaren Erreserba arautzen duten bitartekoetan xedatutakoari ematen dio osoki lege-indarra.

3.1.3.1 Bidasoako estuarioa

Hondarribiko itsasadarrak (Bidasoako estuarioak edo Txingudik) Frantziarekin muga osatzen du eta, horrenbestez, ezkerreko lehorreko ingurunearen diagnostikoa besterik ez dugu egin. Ezkerre hori, Hondarribiak eta Irunek osatutakoa, oso jendeztatuta dago eta, gehienez, hiri-lurzoruak osatzen du. Lurzoru hori ia etenik gabe luzatzen da autobideko muga-pasabidetik Hondarribiko herriguneraino bokalean eta, bertan, sektore garrantzitsuak daude sartuta: garraio-azpiegiturak, autobidea, trenbidea eta Hondarribiko aireportua...

Estuarioan antzemandako presio handienak, logikoa denez, bi ertzetako hiri-finkapen nabarmenetan du sorburua, eta handitzat jotzen da nutrienteen gaineko eraginari, kanalizazioari eta marearteko azaleraren galerari dagokienez. Nabarmen dezagun isurketen eraginez izandako ondorioek nagusiki Frantziako ertzetan dutela sorburua, Espainiakoan ia denak kendu egin baitituzte, eta horrek kalitatea nabarmen hobetu du azken urteotan. Oro har, ur-masaren gaineko presioa moderatua da eta ez dago ageriko eraginik elementu biologikoetan.

Bestalde, Txingudiko Plan Bereziak emandako babesak estuarioko espazio garrantzitsuenen kontserbazioa bermatzen du eta, gainera, hondatutako eremuak suspertzeko modua ematen du; izan ere, gaur egun, eremu horietako 12 berreskuratzeko era askotako lanak egiten ari dira.

Estuarioko ertzen giza okupazio oso nabarmenari (lehen aipatutakoa) galga jarri zaio azken urteotan, Plan Berezia martxan jarri zutenetik, eta, une honetan, ez dago aurreikusita estuarioaren ertzetan eraginik izan dezakeen hazkunderik gerta daitezkeela (ikus 3.1.4 atala)

3.1.3.2 Urumeako estuarioa

Urumeako itsasadarra betegune, marearteko gunearen okupazio eta ubideratze bidez oso aldatutako estuarioa da eta hiri- zein industria-jarduerek, garraio-azpiegituz gain, bere ertzak nabarmen bete dituzte.

Ur-masan antzemandako presioek ekaitzen gainezkabideetan eta hondakin-uren isurketetan dute sorburua batez ere; azken horietako irteera ugari itxi egin dituzte, baina ihesak dituzte.

Estuarioaren azaleraren berri eman dugu jada informazio-memorian: betetze-lanen ondorioz, kalte garrantzitsua izan du eta, gainera, Loiolatik ubideratuta dago ia osoki; bestalde, emari txikikoak izan arren, hiri- eta industria-isurketa ugari hartu behar ditu, eta, horrenbestez, presio moderatua eragiten dute. Beraz, ur-masaren gaineko presio orokorra baxua da.

Estuarioaren Hernaniko hasieratik bokaleraino, handia da hiri-, bizitegi- eta industria-lurzoruaren garapena. Hernanin, bi ertzak okupatuta daude eta Astigarragan, berriz, eskuinalde ia osoa herriguneak okupatuta dago. Donostia udalerrira iritsita, Astigarragatik hurbilen dagoen tarreak eta Martutene aurreko eskuinaldeak soilik jarraitzen dute hiri-okupaziorik gabe.

Dena den, esan beharra dago aipatutako hiru udalerrietako batean ere ez dagoela ertzen okupazioari buruzko proposamen berririk (ikus 3.1.4. atala).

3.1.3.3 Oriako estuarioa

Oriako estuarioko (edo Oriako itsasadarreko) presio handienak azkeneko tartearen kanalizazioak eragiten ditu, marearteko hainbat zonaren betetze-lanak, portu garrantzitsu baten presentzia eta dagozkion dragatze-lanak eta isurketa zuzenak (emari txikikoak izan arren) barne. Oro har, ur-masaren gaineko presioa baxua da eta, dirudienez, ez da elementu biologikoen gaineko eragin nabarmenik gertatzen.

Bizitegi- edo industria-finkapenek ez dute, gaur egun, ertzen okupazio handirik eragin. Estuarioaren hasieran, Usurbilen, herrigune hori dago, hedadura txikikoa dena eta dentsitate ez oso altukoa; gehiengan, eskuinaldean dago kokatuta eta ertzetik 100 metro baino gehiagora.

Bokale aldera, eskuinaldean Aia herria dago eta estuarioaren ertzeko 1.000 metro inguruko luzera hartzen du; aurrez aurre, itsasadarraren beste aldean, luzera bereko fronte bat betez, Orio herria dugu.

Iparraldean eta bokale aldera, hirigintza-plangintzak bizitegi lurzoru hiritarrekoko zona zabalak ezarri ditu, eta, toki batzuetan, itsasadarraren ertzeraino iristen dira. Gainera, Urola-Kostako LZPan egindako proposamenen arabera, zona horiek kostara ere hedatuko dira. Bi kasuetan, Oriako aurreikusitako hirigintza arazorik gabe egin daiteke, babes-zortasuneko zonak okupatu gabe (ikus 3.1.4. atala).

3.1.3.4 Urolako estuarioa

Urolako estuariorako edo Zumaiako itsasadarrerako presio nabarmenenak Urola ibaiaren bidez etorritako kutsatzaileak eta Narrondoko erreka dira, estuariora zuzenean botatzen direnak ez ezik (horiek hiri- eta industria-isurketak dira). Gainera, estuarioaren beheko aldearen kanalizazioak (Zumaian) eta kirol-portuak, ur-masaren % 21 hartzen duen azalerakoak, presio handia eragiten dute. Oro har, ur-masan sortutako presioa moderatua dela eta, dirudienez, ez dago elementu biologikoen gaineko presiorik, nahiz eta, oraindik orain, istripu bidezko isurketengatik arrainak hilda agertu izan diren.

Estuarioak bi adar ditu eta tamaina handienekoa Urola da; tamaina txikienekoa, berriz, Narrondo. Ibaibide nagusian, estuarioaren hasieratik (Oikiaren paretik), nahiko zaharrak diren industriaaldeak daude, baita Oki gunea ere, tamaina txikikoa den arren. Hori guztia Urolaren ezkerrean. Bokalera jarraituz, Gorostiaga aldean, eskuinaldean industria-finkapen zabal bat dago itsasadarraren ertzean bertan.

Bokaletik hurbilago, Urolaren ezker aldean, Zumaiako herrigunea dago, itsasadarraren ertzean bertan, eta ertzearen 2.370 metroko luzera hartzen du: lehenengo 1.000 m-ak industriarako dira eta gainontzekoak bizilekurako. Eskuinaldean, herrigunearen aurrez aurre, aipatutako kirol-portua dago, baita industrialde txiki bat ere.

Narrondon, bi ertzetan hiri-okupazioa dago Urolarekin bat egiten duen puntutik gorantz (1.440 metro eskuinaldean eta 850 metro ezker aldean), eta, bi kasuetan ere, okupazioa itsasadarraren ertzeraino iristen da. Hiri-okupazio horren amaieratik jabari publiko moduan mugatutako zonaren amaieraraino (Txikiardi aldean), udal-plangintzaren zein Urola-Kostako LZPan egindako proposamenen asmoa da hiri- eta industria-ehundurari bi ertzetan jarraipena ematea; aldiz, 3.1.6. atalean deskribatzen dugun bezala, babes-zortasuna 100 metrorainokoa da, zona ez hiritar bati dagokion bezala, eta horrek proposamen horien bideragarritasuna oso bereziki baldintzatuko luke.

Horri buruz, esan dezagun hiri-garapenerako proposatutako zona horietan kontserbaziorako balioa baxua dela eta Inguru Hezeen LAPak kanala Itsasoko eta Lehorreko Jabari Publikoaren (DPMTren) mugatik uretan 400 metro behera soilik zehaztu dituela arloak (kanalak Narrondotik gora egiten du gaur egun lurpekoak ere diren zonetatik).

3.1.3.5 Debako estuarioa

Debako estuarioa nabarmen kanalizatuta dago eta azaleraren galerak, ibaitik datozen kutsatzaile-kopuru handia ez ezik, estuariora egindako isurketa ugari dakartza, horiek emari txikiak izan arren. Gainera, amarre franko eta portu txiki bat daude eta, estuario txikia izanik, azaleraren % 10 jaten du. Oraindik orain, estuariora egindako isurketa batzuk itsasora isurtzen duen araztegi desbideratu dira. Oro har, ur-masaren gaineko presioa moderatua da eta, dirudienez, kalteak dakartzkie makroalgei eta, neurri txikiagoan bada ere, bentoei eta arrainei.

Ertzen okupazioa urria dela esan dezakegu, nahiz eta N-634 errepidea itsasadarrarekin paralelo doan eskuinaldetik, ertzetik oso hurbil itsasadarraren 6 kilometro ia guztietan. Itsasadarraren azkeneko tartean soilik (bokaletik hurbil) daude hiri-okupazioak: Losaberrik itsasadarraren 200 metro ertz hartzen ditu eta Debako herriguneak, bere aldetik, ertzearen 850 metroko frontea, biak ere eskuinaldean kokatutakoak.

Debabarreneko LZPan ezarritako hiri-garapen berriek zorrozki betetzen dute babes-zortasuneko zona eta, beraz, ez dute itsasadarraren ertzen eraginik.

3.1.3.6 Artibaiko estuarioa

Artibaiko estuarioak edo Ondarroako itsasadarrak gizakiaren presio handia jasaten du; gainera, kanalizazio bat dauka bere 3,5 km luzerako amaierako tarte ia osoan. Halaber, hiri- eta industria-isurketa nabarmenak ditu. Bestalde, kanpoaldeko zonan maiztasunez aritzen dira dragatze-lanetan, amarre ugari daude, baita Ondarroako portua ere, eta azken horrek itsasadar osoaren azalera oso handia hartzen du: % 27. Oro har, ur-masaren gaineko presioa baxua da, portu-aldean handiagoa den arren,

eta, horrenbestez, presio moderatuarekin mugan dagoela jo daiteke (izan ere, kalifikazio orokorra baxua da, baina presio nabarmenenak 'moderatu' baloratu ditugu, argi eta garbi baitaude sortutako eraginak).

Ondorioak agerikoak dira elementu biologiko guztietan (fitoplanktonetik hasi eta makroalga, bento zein arrainetaraino).

Estuario honen hiri-garapenak bi ertz ia osoak hartzen ditu, eskuinaldeko kirol-zonaren bi aldeetan kokatutako bi zona txiki izan ezik, 300 metro eta 215 metrokoak, hurrenez hurren, eta etorkizunean ez dago aurreikusita bertan garapenik egitea. Zonen mugaketek (batzuk, artean, behin-behinekoak), babes-zortasuna jabari publikotik 20 metrora ezartzen dute, lehen aipatutako bi zonetan izan ezik: bertan, zona ez-hiritarrei dagozkien 100 metrotan kokatzen da.

3.1.3.7 Leako estuarioa

Leako estuarioa edo Lekeitioko itsasadarra ere tamaina txikikoa da. Presio nagusiak araztegiaren isurketek eta beste isurketa batzuek sortutakoak dira, baita tarte batzuen kanalizazioarenak eta Lekeitioko portuarenak ere (azken horrek estuarioko azaleraren portzentaje txiki bat besterik osatzen ez duen arren).

Oro har, ur-masaren gaineko presioa txikia da eta elementu biologikoen gaineko eraginak ez dira agerikoak, eragin kimikorik ikusi izan dugun arren.

Estuario txiki honen hiri-okupazioa oso murrizta da, Sosuenan kokatutako zona batean izan ezik: ezkerraldean eta bokalean bi aldeetan. Etorkizunean ez dago aurreikusita zona ez-hiritarrean eragina izango duten garapenak egitea.

3.1.3.8 Butroiko estuarioa

Butroiko estuarioak edo Plentziako itsasadarrak presio hauek hartzen ditu: hiri-isurketa batzuk Abaniko aldean, emari txikikoak izan arren, ibaibidearen azken tartearen kanalizazioa, jalkinen aldaketa dragatze-lanak direla eta (hala kanalean nola portuan), amarre ugari eta gehiegizko itsaski-bilketa.

Dena den, ur-masaren gaineko presioa txikia da eta elementu biologikoek ez dute ageriko eraginik izan.

Itsasadarraren ertzeko hiri-lurzoruen okupazioa moderatua dela esan daiteke eta, batez ere, itsasadarraren (hasierako) ezkerraldeko Isuskitzako finkapenak osatzen du, eta meandro oso bat betetzen du, nahiz eta ertzetik hurbilen dagoen aldea Inguru Hezeen LAPak behar beste babestuta egon.

Bokaletik hurbilen dagoen zonan, 2.330 metroko luzeran Plentziako herrigunea dago, eskuinaldea hartzen duela itsasadarraren ertzearaino. Ezkerraldean, Barrika udalerrian, Txipios badiaren bi aldeetan, bi hiri-kontzentrazio daude: Musurieta eta San Telmo, hurrenez hurren, 670 eta 370 metroko frontea hartzen dutenak.

Etorkizunean ez dago aurreikusita itsasadarraren okupatu gabeko beste ertz batzuetan eraginik izango duen plangintzarik, ez hirigintzakerik eta ez lurraldekerik.

3.1.3.9 Barbadungo estuarioa

Pobeñako itsasadarrak edo Barbadungo estuarioak presio handiak ditu, hiru faktore direla eta: petrolio-industria, tarteka estuariora isurketak egiten dituen; estuarioren beheko aldean kokatutako abeltzaintza intentsiboa, nutrienteak barreiatuta ematen dituen; eta araztegiaren isurketa, dirudienez, batzuetan ez baitabil egoki. Hala ere, nabarmen dezagun isurketen alde handiena Petronorri dagokiola (% 80), dagoeneko kostaldera desbideratu egin dena. Gainera, esan behar da estuarioak marearteko azalera handi bat galdu duela eta kanalizazio moderatua izan duela.

Oro har, estuarioko presioa txikia da, baina egiaztatu ahal izan denez, makroalgek batez ere ondorioak nozitu dituzte (kalitate txarrekoak), baita arrainek, bentoeak eta fitoplanktonek ere, betiere estuarioaren zonaren arabera (dena den, kalifikazio txarrena kalitate moderatukoa izan dute).

Hiri-garapenaren okupazioa itsasadar honetan oso nabarmena da. Esan besterik ez da jatorrizko azalera oso urria dela, batez ere 1970eko hamarkadan petrolio-industriek estuarioaren azalera zati handi bat hartu zutelako. Industria horiek itsasadarraren eskuinaldean daude ertzeraino bertaraino eta ibilbide osoan, bokalerako tarte txiki batean izan ezik.

Ezkerraldean, bi gunek besterik ez dago: San Julian, erdiko tartean, eta Pobeña, bokalean. Gainera, Bilbao-Santander autobideak, bi herriguneeen arteko bidezubi garrantzitsu baten bitartez, alderik alde zeharkatzen du itsasadarra.

Hirigintzaren hazkundeko aurreikuspenak Muskiz gunearen mendebaldean kokatzen dira, estuarioaren isatsetik hurbil, baina itsasadarretik behar bezain urruti izanik, ez dute eraginik izango horren ertzetan.

3.1.4 Antolamendu-ereduak edo plangintzak sortutako lurralde-eraginak

3.1.4.1 Antolamendu-ereduak sortutako lurralde-eraginak

Hala Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak nola lurraldearen zatiko planak lurraldea antolatzeko ereduak eratzen eta definitzen ari dira, Erkidegoko Itsasertzean eragin argia duena eta gainontzeko tresnek onartu behar dutena. Eragin adierazgarrienen artean, ondorengoak dira nabarmentzekoak:

a) Eremu metropolitarraren sendotzea. Erkidegoko bi hirigune nagusiak itsasertz-zonan daude, eta LZPen proposamenek euren funtzioak indartu egiten dituzte.

a.1) **Bilbaoko eremu metropolitarraren:** ez dugu espero demografia-hazkunderik gertatuko dela, baina bere azpiegiturak eta erabilera orokorrak berrantolatzen ari dira. Hartara, eremu hondatuak

berrikuntza-lanak sustatu ez ezik, ezkeraldearen industria-izaera eta eskuinaldearen bizitegi-izaera sendotu da. Biztanlegune horretako olgetako erabileren eta bigarren etxebizitzaren eskariaren presioa gaur egun agerikoa izan ez ezik, haziz joango da LZPak berretsitako okupazio-eredua errotu ahala. Getxo - Gorkiz korridorea konplexutasun bereziko eremutzat hartzen da.

a.2) **Donostiako eremu metropolitarrak:** Bilbaokoarekin alderatuta, bere gaur egungo egoera hasi berriagoa da. Donostiak traba topografikoak ditu eta, inguruko herriguneetako haranen hondoak era masiboan kolonizatu dira, eta industrialdez inguratuta dago. Donostia eta Pasaiako portuaren arteko segida fisiko bakar bat da agerikoa (Pasaiakoa – Errenteria – Lezo), eta, bertan, gertatzen da eremuko industria-kontzentrazio handiena. Bestalde, **Bidasoa Behean** beste hiri-kontzentrazio garrantzitsu bat kokatzen da.

Eremu metropolitarrak hau antolatzeko orduan, LZPak Donostiaren eta Pasaiaren hazkunde mugatzearen aldeko aukera egiten du eta, aldiz, batez ere Irunen eta Hondarribian kokatzearen aldekoa. Era berean, gaur egun lehenengo urratsetan dabilen Lezo eta Irun arteko industria-jardueren eremua eratzea bultzatzen du. Era horretan, hiri-korridore zabal bat osatuko da Urumea eta Bidasoa artean, itsasertzeko frontean eremu libre handi bat duela (Jaizkibel).

b) Bigarren etxebizitzaren sustapena. Hala LAAek nola horiek garatzen dituzten LZPek turismo-jarduerak bigarren etxebizitzaren fenomenoari lotzeko joera dute eta, ondorioz, eskari endogenoari soilik heltzen diote eta ez, ordea, zentzu hertsiko turismo-jarduerak edukitzeko ahalmenari. LAAek adierazi ere egiten dutenez, *“bigarren etxebizitzaren fenomenoak turismo-garapenaren aurreko pausoa da”* edo *“bigarren etxebizitzak zubi-lana egiten du hiri-finkapen iraunkorren eta bidenabarreko turismoko edo hoteleko turismoko jardueren artean”*.

LAAen esparruan, udalerririk batzuetan, bigarren etxebizitza sustatzeko ekintzak ere proposatu dituzte, eta LZPei agintzen zaie udal-plangintzan bigarren etxebizitzarako lurzoru-eskaintzaren gehienezko mugak ezar ditzaten. Era berean, LZPei dagokie esparru funtzional bakoitzeko turismo-azpiegitura egokia proposatzea (instalazioak, portuak, hotelak, parke tematikoak, ibilbide tematikoak eta turistikoak, kanpinak etab.).

Orientazio zehatzen artean, LAAek ondorengoak adierazten dituzte:

- Donostia-Beterriko eta Urola-Kostako eremu funtzionalerako turismo-azpiegitura sustatu.
- Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionalaren kostako udal-plangintzek bigarren etxebizitzarako garapenak orientatuko dituzte, eta arazo estrukturalak eta uneko zurruntasunak konpontzen ahaleginduko dira.

- Busturialdea-Artibai, Mungia eta Bilbaoko eremu funtzionalen espezializazioa bultzatuko dute batez ere Bilbao metropolitarrako eskaria har dezaten.

Horrenbestez, ingurumen-aldetiko beste oharpen batzuk gorabehera, LAAek eremu jakin batzuek bigarren etxebizitzako erabilera batzuk hartzeko ahalmena adierazten dute. Hori argi eta garbi geratzen da agerian hala Bilbo Metropolitarrako LZPan (Getxo-Plentzia eremua) nola Donostialdea - Bidasoa Behea, Urola-Kosta eta Debarreneneko kostako udalerrietan.

3.1.4.2 Plangintzak sortutako eraginak

LZPek adierazitako bizitegi- eta industria-lurzoruak kokatzeko proposamenen azterketa kontrastatuak, udal-plangintza hiritarretako lurzoruaren sailkapenenak eta kontserbaziorako ingurumen-balioaren adierazleenak, modua ematen dute defendatutako antolamenduaren eta hirigintza-araudiaren ereduaren zenbateraino den koherentea antzemateko.

3.1.4.2.1 Lurraldearen zatiko planen antolamendu-ereduak sortutako eraginak

Oro har, industria- eta etxebizitza-erabilera hedatzeko LZPek aurreikusitako eremuek ez dute eragin larrik sortzen plan honen antolamendu-proposamenari lotuta. Ohikoena da proposamenek kontserbaziorako interes handieneko eremuak, itsasertz-zerrendatik hurbilenak, edozein presiotatik libre gordetzeko joera izatea.

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean, proposamen bakar batek ere ez du bi tresnen esparru komunean definitutako ekosistemak bereziki babestu eta hobetzeko zonan eraginik.

Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionalean, ondorengo kasuak antzeman ditugu:

Lekeitio. Lekeitio herritik ipar-mendebaldera, Eguzki Begi deritzan tokian, dentsitate handiko bi bizitegi-eremu proposatu dituzte. Biek ekosistemak hobetzeko eremu batean eragiten dute zati batean.

Ondarroa. Ondarroa herrian, herri barneko Saturraran hondartzatik hego-ekialdera dentsitate ertaineko bizitegi-eremu bat proposatu dute, eta ekosistemak hobetzeko eremu batean neurri txiki batean eragiten du. Pixka bat hegoalderago, GI.638 errepidetik mendebaldera ere, dentsitate txikiko bizitegi-eremu bat proposatu dute, eta, horrek, halaber, aipatutako ekosistemak hobetzeko eremuan neurri oso txikian eragiten du.

Mungiako Eremu Funtzionalean, proposamen bakar batek ere ez du eraginik bi tresnen esparru komunean definitutako ekosistemak bereziki babestu eta hobetzeko zona batean.

Donostia-Beterriko Eremu Funtzionalean, Pasaia kanpoko portu berriak sortutako eragin bat baino ez dugu antzeman, eta azpiegiturei dagokien atalean aipatuko dugu.

Debabarreneko Ereku Funtzionalean, ondorengo arazoak antzeman ditugu:

Deba. 7.5 ha-ko dentsitate txikiko bizitegi-eremu baterako proposamena egin dute Debako hondartzaren hegoaldean, Buenos Aires (iparrean) eta Santiago (hegoan) deritzen lekuen artean. Ipar-ekialdeko zatian ekosistemak hobetzeko eremu batean eragina du 6000 m² ingurutan eta, erdialdetik, ekosistemak hobetzeko bigarren zona batean, 3000 m² ingurutan.

Mutriku. Mutriku herrian, Motril deritzan zonako portutik mendebaldera eta, are mendebalderago, Korda deritzan zonan, ekosistemak hobetzeko bi eremutan eragina duten bi proposamen egin dituzte. Lehenengoak (5.2 ha-koa) hobetzeko eremuaren 0,3855 ha-tan du eragina; bigarrenak (21,6 ha-koa), berriz, ekosistemak hobetzeko eremuaren 0,8794 ha-tan eragiten du: azaleraren % 87,05en.

Mutriku. Herri honetan bertan, portutik hegoaldera, Arrizetako ingurunean, dentsitate txikiko bizitegi-eremu baten proposamena egin dute, 42,3 ha-ko azalera, eta ekosistemak hobetzeko hiru eremutan eragiten du: ekialdeen dagoenean erabat, erdialdekoan % 96n eta mendebaldekoenean % 38,7n.

Urola-Kostako Ereku Funtzionalean, ondorengo arazoak antzeman ditugu:

Zumaia. Zumaia herrian, Santiyo Txikito hondartzaren hegoaldean, Larraondoko Erriberak tokian, dentsitate handiko eremu bat dago proposatuta, eta 52 ha-koa azalera du. Ekosistemak hobetzeko eremu batean eragiten du erabat eta apur bat ekosistemak hobetzeko beste eremu batean, pixka bat hego-mendebalderago Txikiardi aldean.

Laburbilduz, Bizkaiko kostan, ez Bilbaoko itsasadarren eskuinaldeko bizitegi-zonen zabalpenak eta ez ezker aldeko industria-garapenak ez daude aurreikusita kontserbaziorako balio bereziko zonetan. Berdina esan behar da proposatutako gainontzeko garapenei buruz, aipatutako Ondarroako eta Lekeitioko kasuetan izan ezik, nahiz eta nolana ere babes bereziko zonetan eraginik izatera ere ez diren iristen.

Hori bai, zalantzarik gabe, Bilbao-Getxotik Plentzia-Gorlizeraingo bultzatutako konurbazioak giza presioa nabarmen indartzen du kosta osoan, eta hori epe labur-ertainean antzeman egingo dute intereseko espazio naturaletan, ez hainbeste bizitegi erabilerengatik –oraingoz, dirudienez, baztertuta daude-, atsedene- eta aisialdi-eremuen eskari handiagogatik baizik. LZPak horrelako eremuei parke metropolitarraren funtzioa ere ematen die eta, horrenbestez, eman nahi dieten orientazioa agerian geratzen da.

Gipuzkoako itsasertzari dagokionez, alde nabarmena dago Donostia-Bidasoa Behea sektorearen eta mendebaldeko kostako guneen artean.

Donostia inguruan sortutako eremu metropolitarrak (Errenteria-Pasaia-Lezo) mugatuta ditu hedatzeko aukerak; izan ere, horretarako egokiak ziren espazioak gainezka daude. Etorkizuneko hazkunde-aukera bakarrak barneko bailaretan (Astigarraga,

Hernani, Lasarte) eta Bidasoa Behean daude (Irun, Hondarribia). Horiek dira, hain zuzen, kontserbaziorako balio gutxiena duten eremuak.

Horrenbestez, ez dugu espero ondorio larririk itsasertzean eredu hori gorpuztearen eraginez, betiere interes handieneko eremua babesten bada: Jaizkibel (Txingudiz gain), bere espazio libre izateko zeregin estrategikoa areagotu egiten baita Donostia – Pasaia – Irun – Hondarribia konurbazioa itxuratu ahala. Horri lotuta, Pasaiaiko portu berriari buruzko proposamenak eragin larriak izan ditu itsasertz-eremu berezi horretan, azpiegiturei buruzko atalean aipatu dugun bezala.

Hiri-garapenak mendebaldeko hiriguneen aldamenean kokatzeari dagokionez, zehaztu ditugu jada zein izan diren antzemandako eraginak. Erabilera horiek hartzeko egokitzat proposatutako eremu guztien artean, Orion eta Zarautzen kokatutakoak dira ingurumenaren aldetik arazotsuenak.

3.1.4.2.2 Udal-plangintza hiritarrak sortutako eraginak

a) Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarriak. LZPetan gertatu bezala, udal-plangintza hiritarrak biltzen duen hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriak garatzeko proposamenei buruzko azterketak agerian jarri duenez, plangintza hori ez dago kontraesanean itsasertzeko natur balioak babesteko beharrezanekin, interes handieneko eremuak ez baitute eraginik izaten. Ingurumenerako ondorioak nabarmenak izan daitezkeen bi puntu besterik ez da antzeman, eta gainontzeko kasuetan garrantzi gutxiagokoak dira. Egoera ondorengoa da:

- Lekeitio inguruan hiri-garapenekin bereziki erraz kalte daitekeen eremu bat dago. Oraingo finkapena inguratzen dute espazio guztiak oso balio handikotzat hartzen dira, edo kontserbaziorako balio handikotzat.
- Eragin partzialak eta oso unean unekoak daudela behatu dugu ondorengoetan, kontserbaziorako balio handiko edo oso handiko zonen gaineko hiri-garapenen ondorioz:
 - * Getxoko herrigunearen mendebaldea
 - * Plentziako herrigunearen ingurua
 - * Bermeoko herrigunearen mendebaldea
 - * Gernikako herrigunearen ekialdea
 - * Debako herrigunearen ingurua
 - * Orioko herrigunearen ingurua
 - * Irungo herrigunearen mendebaldeko garapenak

b) Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizaezina sailkapena lurraldearen ingurumenaren gaineko balorazioarekin bat etortzeari dagokionez, adieraz dezagun kontserbaziorako balio handia edo oso handia itsasertzaren aldamenen dauden zona gehienak udal-plangintza hiritarrak era murriztailean tratatzen dituela, alegia, babesen bat ematen die. Barnealdean, berriz, oso balio handiko zonek erregimen orokorreko lurzoru urbanizaezinaren erabilera eta jarduerentzako araudia izaten dute maiz. Ingurumen-balio handia izateagatik, hirigintzako sailkapen desegokia duten zonetan, ondorengo udalerrietan kokatutakoak dira nabarmentzekoak:

- Abantoko herrigunearen ondoko zona
- Getxo-Plentzia korridoreko eremuak
- Ispasterreko barne-mendilerroak
- Mutriku eta Debako barne-eremua
- Debako kosta-eremua
- Aizarnazabal, Zestoa, Zarautz eta Aiako barne-eremuak
- Orioko kosta-eremua
- Donostiako kosta- eta barne-eremua
- Pasaiako barne-eremua
- Hernaniko barne-eremua

3.1.5 Azpiegitura-gaietan aurreikusitako jardunak (saneamendua eta arazketa izan ezik)

Ondoren administrazio-organo batzuek eta besteek beste azpiegitura batzuen inguruan programatu dituzten jardunen diagnostikoa egingo dugu, horiek eragina izan dezaketelako itsasertzeko lehorreko ingurunean. Atal honetan alde batera utzi ditugu uren saneamendua eta arazketa. Horiek 4.1.2 atalean deskribatuko ditugu, zuzeneko eragina baitute itsasertzeko eta trantsizioko inguruneetako uren kalitatean.

LAAek beren 5.3 artezpidean, jarduerak kontrolatzeari buruzkoan, zehatzago esateko, bertako A atalean, azpiegituri eskainitakoan, diotenari jarraiki, azpiegiturak kokatzeko eta diseinatzeke garaian, ezinbestekoa izango da lurraldearen kontserbaziorako balioak, gutxienez, ekologiaren, produkzioaren, paisaiaren, zientziaren eta kulturaren ikuspegitik aintzat hartuko dituzten alternatibak proposatzea.

Hori kontuan izanik, ondorengo ataletan itsasertzeko esparruaren baitan kalte errazekotzat jo diren zonetarako programatutako jardunen berri emango dugu. Horrela,

jardun horiek gauzatzeko garaian, dagozkien babesteko eta zuzentzeko neurriak hartu beharko dira, jardunen xede diren ingurumen-unitateen balioaren arabera.

3.1.5.1 Errepideak

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra. Lehenetasunezko Interesa duen Sarean eta Oinarrizko Sarearen zati batean, eta EAEko Errepideen Plan Orokorrean (1993 - 2004) barne hartutako bide-azpiegituretako esku-hartzeen aurreikuspenek ez dute eraginik Bizkaiko lurralde historikoan, trazadura berriei dagokienez.

Itsasertzeko esparruan kokatutako Gipuzkoako lurralde historikoari begira, halaber, ez da trazadura berririk aurreikusi, Zumaia, Zarautz, Orio, Pasaia eta Erreenteriako saihebidetako izan ezik (horien eragina ez da garrantzitsua azterlan honi begira).

b) Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetatik eratorritako xedapenen kasuan, egoki litzateke zenbait ñabardura egitea errepideetako artezpide zehatzen inguruan.

Izan ere, 13 artezpidearen 5.6.3. atalak, interes paisajistikoa duten kostaldeko ibilbideak (errepideak) egokitzea proposatzen du. Bertan dioenez, horiek diseinatzerakoan ingurumen-kalitatea, behatokiak, laguntza-zerbitzuak eta aisia eta jolaserako ekipamenduak gailenduko dira eta horiek lurraldearen puntu bat beste batekin lotzeko funtzioaren osagarri izango dira, bide-funtzionaltasunari dagozkion zenbait ezaugarritan oinarrituta.

Ibilbide horiek tokiko sareko nahiz sare orokorreko eta lehenetasunezko interesa duen sareko errepideetan daude, eta ia etenik gabeko lerroa osatzen dute euskal itsasertzean, Gorkiztik Zarautzeraino.

Jardun honen eragina bi ikuspegitatik izan behar dugu aintzat.

Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, bide horiek hobetzeak eta sustatzeak bisitarien joan-etorriak oro har ugartzea izan dezakete ondorio, eta horrek itsasertzeko ingurune horretan giza presioak gora egitea ekarriko du berekin. Oro har, eragin hori ez da negatibotzat jo behar, bideak egokitzea izango litzatekeelako, eta ez trazadura berriak egitea. Hortaz, isolatuta egonez kontserbatzen diren naturguneek bere horretan jarraituko lukete. Haatik, ezingo dugu ahaztu hobekuntza horien xede izango diren herri eta herriguneetan joan-etorriek gora egingo dutela.

Ingurumenaren ikuspegitik begiratuta, proposatutako zatietako batzuek kontserbaziorako balio handia duten kalte errazeko eremuak zeharkatzen dituzte, eta bertako baliabideetan eragin liteke, jarduna bera dela, eta nahiz jardunetik eratorritako joan-etorrien gorakada dela eta.

Hala, Gorkiz hasitako ibilbideak ekialderantz egingo du, Bakiotik barrena, Bermeorantz, kontserbaziorako interes handikoa den zona zeharkatuz, alegia, Matxitxako eta Gaztelugatxeko San Joan arteko zatia zeharkatuz.

Hortik Mundaka-Gernika itsasadarrean barrena jarraituko du, eta bertako ibilbidea aisian eta jolasean oinarritutakoa izango da. Gernikatik Ibarangelura doan errepide-zatiak Urdaibaiko Biosferaren Erreserba zeharkatzen du, kontserbaziorako balio handienekotzat jotako zona baten inguruan.

Ekialderantz jota, ibilbideak Lekeitioraino jarraitzen du. Bertan kontserbaziorako balio handieneko beste zona bat zeharkatuko du berriz, Otoiko mendiei eta itsaslabarrei dagokiena. Handik Mutrikurantz jarraituko du, eta bertan Mutriku-Debako itsaslabarrak zeharkatuko ditu, horiek ere ingurumen-balio handienekoak.

Proposamenaren arabera, izaera bera izango luke Deba, Zumaia, Getaria eta Zarautz lotzen dituen N-634 errepidearen zatiak. Zarautz eta Getaria arteko itsas pasealekua egokitu egingo dela baieztatu da, eta badirudi nola gauzatu erabakitze bidean direla. Ibilbide hori guztia kalte errazeko itsasertzeko zati batean dago, kontserbaziorako interes handienekotzat jo baita inguru hori.

3.1.5.2 Portuak

3.1.5.2.1 Plangintza

Portuetako jardunen plangintzari dagokionez, Portuak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea aurreikusita dago. Plan horretan zehaztuko dira gai honetan etorkizunean egin beharreko jardunak.

3.1.5.2.2 Pasaiako kanpoko portuaren proposamena

Donostia-Beterriko Ereku Funtzionaleko LZPan eztabaidatzeko aukera gisa bakarrik agertzen den arren, merezi du berriaz aipatzea **Pasaiako** kanpoko portu berriaren proposamena. Portu hori Azabaratza (hegoaldean) eta Gastarrotz muturren (iparraldean) arteko kostan kokatuko litzateke.

Proposamen horrek eragin handia du babes zorrotz bereziko eremu baten baitako 21,86 ha-tan. Azalera hori aipatutako eremu horren, alegia, Jaizkibel inguruaren, % 42 litzateke. Beraz, eragina handia izango litzateke naturgune berezi horretarako. Gainera, dagoeneko adierazi da eremu hori babestu beharrekoa dela.

Kontuan izan behar dugu Jaizkibelgo eremu hori guztia Natura 2000 sarean sartzea proposatu dela, hain zuzen ere, ES2120017-Jaizkibel izeneko interes komunitarioko toki gisa. Bada, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko adierazi du espazio hori babesteko interesa duela. Hori guztia dela eta, plan honetan jardun horren ingurumen-kostuak **onartezinak** direla iritzi diogu.

3.1.5.3 Bideratzeak

Eusko Jaurlaritzak bideratzeen inguruan programatutako jardunak herriguneetan uholdeak prebenitzera bideratutakoak dira.

Seguru dakigu bideratzeak egin direla Urumea eta Oria ibaietan, baita Irain errekan ere, Zarautzen.

Urumean eta Orian programatutako jardunek itsasadarraren barne-lokaztietan dute eragina. Hori dela eta, jardunek egun dagoen ibaiertza errespetatu beharko dute eta ez dute inolako betegunerik egin behar, bereziki Oriaren itsasadarrean, nabarmena baita unitate horren kontserbaziorako balioa.

3.1.5.4 Trenbidea

Itsasertzean eragiten duten jardun nagusiak aztertuz gero, ondoriozta dezakegu jardun horiek oso kokaleku zehatza dutela. Ondoren zehaztuko ditugu horiek.

Aldiriko trenen inguruko proiektuak

Euskotrenen linean, LAParen eraginpekoa den zonan, ez da esku-hartze handirik aurreikusi, ez baita linea berririk egingo. Plangintza gaur egungo instalazioak birmoldatzean datza, berorien funtzionaltasuna hobetzeko. Esku-hartzeetako asko hiri-geltokiak hobetzera edo lineak hirigintza-arrazoiak direla eta lurperatzera bideratutakoak dira, Bilbao eta Donostian esaterako. Itsasertzean kontuan hartzeko moduko eragin duten esku-hartzeen inguruan honakoak dira aipatzekoak:

- Lasarte-Amara (Donostia) arteko trenbide-zati bat bitan banatzea. Jardun hori ezinbestekoa da Zumaia- Zarautzerako trenak maizago jartzeko. Euskotrenen jarduna.
- Amorebieta-Bermeoko adarrean San Kristobal-Sukarrieta zatia bitan banatzea, trenen joan-etorri handiagoa ahalbidetzeko. Jardun honek Urdaibaiko Biosferaren Erreserban izan dezake eragina. Euskotrenen jarduna.
- Irungo trenbide-instalazioak aldatzea eta egokitzea. Irun-Kolon geltokietan hartuko da esku, Bidasoa ondoan. Euskotren eta RENFEren jarduna.
- Bilbaoko porturako sarbide berriak. Portuko instalazioak ABRARA lekualdatzeak berekin dakar salgaien trafikoak gora egitea, baina gaur egungo linea ez da nahikoa horretarako. Hori dela eta, gaurkoaren kanpotik joango den trazadura berria eraikitzea proposatzen da, hartara egun dagoena osatzeko. Proiektu horrek eragina izan dezake itsasertzean.
- Pasaiako porturako sarbide berria. UIC zabalerako adar berria eraikitzea proposatzen da, Frantziako mugatik hasita gaur egungo salgaien linearekin lotzeko, ondoren Madril-Irun linearen trazadurari jarraitu ahal izateko porturaino.

Ibilbide luzeko trenen inguruko proiektuak

Ibilbide luzeko proiektu nagusia Abiadura Handiko Trenaren trazadurari dagokiona da. Trazadura horrek euskal Ya osatzen du, Gasteiz, Bilbao eta Donostia lotzen baititu mesetarekin, Madrilekin, eta Europa osoarekin, Irunen barrena.

Egiaz behin betiko trazadura oraindik definitu ez bada ere (hainbat puntutan aukera desberdinak aztertzen ari dira), itsasertzeko zerrendari dagokionez Andoain-Errearteria eta Errearteria-Irun zatiak dira arazoren bat eragin dezaketenak, baina hori gauzatuko den alternatiba zein den definitzen denean aztertuko da. Arazo horiek Pasaiako portutik eta Bidasoa ibaiaren bokaletik (Txingudi) oso hurbil egotearekin dute zerikusia.

Bilbao inguruan, berriz, aztertzen ari diren alternatiben arteko bakar batek ere ez du eragiten, dirudienez, itsasertzean.

Hiri-eremuetako proiektuak

Itsasertzeko bi hiri nagusiak eremu metropolitartzat jotzeak eskakizun du gaur egungo trenbide-sistemetan aldaketa esanguratsuak egitea, batez ere, geltokiak hiri-ehunean integratzeko, zaharkituta dauden geltokiak kentzeko/beste nonbait kokatzeko, eta hurbil dauden udalerriekiko loturak sustatzeko.

Berehala egingo diren proiektuen artean azpimarratzekoak dira Bilbaoko 2. linea, ezkerrean barrena joango dena eta Santurtzitik abiatuko dena.

Batez ere hirietan eragingo duten beste proiektu batzuk hainbat aglomeraziotan proposatu diren metro arinak ditugu. Horien artean ondorengo proiektuak nabarmen ditzakegu, itsasertzean nolabaiteko eragina izango dutela eta:

- Bilbaoko alde zaharreko metro arina (Olabeaga, Atxuri, Minas, Otxarkoaga)
- Santurtzi- Olabeaga metro arina
- Leioa-Lezama metro arina
- Donostiako metro arina
- Hondarribia-Irun metro arina

3.1.6 Lehorreko ingurunean eragina duten esku-hartzeen sintesia eta balorazioa

Bistan denez, estuarioak eta itsas ingurunea —adiera estuan ulertuta— alde batera utzita, lehorreko ingurunearen lurralde-diagnostiko orokorra ezin da egin hautemandako jardueretako bakoitzak zehatz-mehatz izandako ingurumen-eragina aldeaz aurretik ebaluatzen saiatuz, aurreko kapituluan beste bi inguruneen kasuan egin

dugun bezalaxe. Hori lurralde-azalera handia izateari zor zaio, eta edonola ere, hori dagoeneko zehatz samar jorratu dugu arloetan hautemandako esku-hartzeak diagnostikoaren mailan deskribatzeko garaian.

Dena dela, ondorio modura edo, jarduera hauen eraginaren gaineko balorazio orokorra egin dezakegu, nortasun juridiko-administratiboa duten hiru zerrendak bereiziz: itsasoko eta lehorreko jabari publikoa, babes-zortasuneko zona eta aztertutako lehorreko ingurunearen gainerako zatia (eragin-eremua barne hartuko lukeena hedaduraz).

a) Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko zona. Zona honi dagokionez, bi dira azpimarratzeko moduko ondorio orokorrak. Batetik, zalantzarik gabe, kontserbaziorako gehieneko balio (oso balio handiko) zerrenda da, itsasertz osoan. Horretan salbuespen izango dira zorrozki hiritarrak diren eremuak, finkatuak, bizitegirakoak eta industriarakoak. Bestalde, egiaztatu ahal izan dugu ia ez dagoela zona honen babes eta kontserbazioan eragin dezakeen arazorik, ez industria-hornidurei dagokienez, ez hiri-garapen berrietatik eratorritako eraginei dagokienez. Oro har, eta ia salbuespenik gabe, egokiak dira udaletako, udalaz gaindiko eta arloetako plangintzek adierazitako babes-mailak. Ez dugu gatazkarik hauteman. Aipatzekotan, Getaria eta Zarautz arteko zatia aipatuko genuke. Zati hori sustatu beharreko hiriarteko artikulazio-ardatz izango da LZParen arabera, eta turismo-erabilerei lotutako azpiegitura-hornidura izango du (itsas pasealekua, eta abar).

b) Babes-zortasuneko zona. Amaierako ondorioa oso antzekoa da. Hala ere, egoki litzateke ñabarduraren bat egitea. Lehenik eta behin, zerrenda honi legokiokeen azaleraren zatirik handienak —mugak formalki adierazita nahiz ez— kontserbaziorako balio handia edo oso handia du, nahiz eta izan badiren argi eta garbi balio ertaina duten zatiak. Bestalde, udaletako nahiz udalaz gaindiko plangintzek errespetuz jokatzeko dute zona hauek erabiltzerakoan, eta erabilerak babesteko helburuen arabera esleitzen dituzte. Haatik, eragin puntual batzuk hauteman ditugu, zuzenekoak zein zeharkakoak. Eragin horietako batzuk udalerriri batzuen hiri-eremuak zabaldu behar diren ondorio dira. Hori dugu Lekeitio eta Orioren kasua. Beste batzuk, berriz, kostaldeko zenbait zabalgunek bigarren etxebizitzetara eta intentsitate txikiko erabileretara bideratzearen ondorio, Mutriku eta Debako itsasertzeko zatien kasuan, esate baterako. Turismo eta aisiaren inguruko azpiegitura-hornidura handi samarren ondorio ere badira beste batzuk. Sopelanako itsasertzeko zatia eta hurbileko sektoreak ditugu horietako batzuk. Nolanahi ere, gatazkak ez dira larriak, sektore horiek duten kontserbaziorako balioa ez delako oso handia edo handia (horretan salbuespen dira lehenengo kasuan aipatutakoak, Lekeitio eta Orio, alegia).

Ondoren aipatuko ditugun kasuetan babes-zortasuneko zonetan barne hartutako garapen-eremuak proposatu dituzte LZPek. Kasu horietan guztietan behin betikoak dira mugatzeak.

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean, LZPak egindako proposamenetako bakar batean ere ez du eragiten babes-zortasuneko zonak.

Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionalean honako kasu hauek hauteman ditugu:

Bermeo. Bermeo udalerrian, portuaren ipar-mendebaldean, Aritxatxu hondartzaren inguruan, dentsitate ertaineko bizitegi-eremua egitea proposatu du LZPak. Eremu horrek 1.3 ha izango ditu, eta horietatik 2.300 m² babes-zortasuneko zonaren barruan daude.

Mungiako Eremu Funtzionalean, LZPak egindako proposamenetako bakar batean ere ez du eragiten babes-zortasuneko zonak.

Donostia-Beterriko Eremu Funtzionalean, dagokion LZPak egindako proposamenetako bakar batean ere ez du eragiten babes-zortasuneko zonak.

Debabarreneko Eremu Funtzionalean, ondorengo arazoak hauteman ditugu dagokion LZPak egindako proposamenen inguruan:

Mutriku. Mutriku udalerrian, portuaren hegoaldean, GI-638 errepidearen 56. km-aren inguruan, dentsitate txikiko bizitegi-eremua egitea proposatu da. Eremu horrek 42.3 ha-ko azalera izango du, eta horietatik 2,67 ha babes-zortasuneko zonaren baitan daude.

Urola-Kostako Eremu Funtzionalean, berriz, honako arazo hauek hauteman ditugu:

Zumaia. Narrondon, Txikierdi, Mugerza eta Larrondoko Erriberak izeneko zonan, dentsitate handiko bizitegi-zona proposatu da. Zonak 52 ha izango ditu, eta horietatik 12,55 ha babes-zortasuneko zonaren barruan daude. Halaber, ekialderaxeago, Koitxope izeneko ingurunean, dentsitate handiko 25 ha-ko bizitegi-eremua proposatu da, eta horietatik 1,2 ha babes-zortasuneko zonaren baitakoak dira.

Zumaia udalerrian bertan, Akebano inguruan, San Telmo ermitaren hegoaldean, dentsitate handiko bizitegi-eremua proposatu da. Eremu horrek 4,3 ha izango ditu eta horietatik bat babes-zortasuneko zonaren baitan dago.

Zarautz. Zarautz udalerrian, Golfaren hegoaldean, San Pelaio ibaiaren eskuinaldeko ertzean (Zubiondo inguruan), dentsitate txikiko bizitegi-zona bat egitea proposatu da. Zona horrek 13,9 ha-ko azalera izango du, eta horietatik 600 metro karratu babes-zortasuneko zonaren baitan daude.

Orio. Orio udalerrian, hondartzako kanpinaren hegoaldean, Bilbao-Donostia autobidearen bi aldeetan dentsitate handiko bizitegi-eremu bana egitea proposatu da. Autobidearen iparraldean kokatutako eremuak 11 ha-ko azalera izango du, eta horietatik 3,52 ha izango ditu babes-zortasuneko zonaren barruan. Bigarrenak, autobidearen hegoaldean kokatutakoak, berriz, 16 ha-ko azalera, eta horietatik 6,38 ha babes-zortasuneko zonaren baitan.

Hautemandako kasu horien guztien artean Zumaiako Narrondokoak bakarrik dirudi esanguratsua, egindako proposamenen arabera duen garrantzia dela eta. Izan ere, kontserbaziorako balio handiko zonarik ez dagoenez eta egun zona horien

okupazio-maila oso handia denez, dagoeneko egindako mugatzea berrikusteko aukera izango litzateke, justifikazio-memoriaren 4.3.4 atalean adierazi bezala.

c) Lurraldearen gainerako zatia. Amaitzeko, aztertu dugun lehorreko gainerako zonari begira, kasuistika oso anitza eta heterogeneoa da. Edonola ere, hautemandako arazoak hiri-plangintzen aurreikuspenen eta lurzoru urbanizaezina arautzerakoan inguruneari emandako kontserbaziorako balioaren eta babes-mailaren arteko koherentziaren mailaren ondorio dira, eta ez hainbeste azpiegitura-jardun zehatzen ondorio, esate baterako. Eragin nagusiak 6. liburukian adierazi ditugu, udal-plangintzen eraginei buruzkoan, hain justu.

3.1.7 Babestutako eta katalogatutako espazio naturalak

Euskal itsasertzean naturgune garrantzitsu ugari dago, eta horietan balio naturalistiko eta edertasun bereziko eremuak sortzen dituzte ezaugarri abiotikoen eta biotikoen arteko loturek. Horiek lurraldean barrena duten banaketa ikusita, egiazta liteke ia itsasertz osoa dagoela espazio garrantzitsu gisa katalogatuta, Barbadunen itsasadarretik hasi eta Jaizkibeleraino. Horretan salbuespen ditugu zenbait zati: Bilbaoko kanpoaldeko Abra eta Elantxobe eta Lekeitio, eta Belabieta eta Ullia arteko zatiak.

Intereseko naturgune horien balioa handiagoa edo txikiagoa izango da, erakundeek naturgune horiei eskainitako babesaren eta horiek aitortzearen arabera.

Horri jarraiki, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba dugu espaziorik "kuttunena", bere balioa paregabea delako eta nazioartean hori hala aitortu delako. Hori uztailearen 6ko 5/1989 Legeak, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzkoak, aitortu zuen. Gainera, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbarako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana du, 1993ko abuztuaren 3an onartutakoa, aipatutako legea garatzeko.

EAEko Espazio Natural Babestuen Sareari dagokionez, berori osatzen duten 5 *parke naturalen* arteko bakar bat ere ez dago itsasertzean. Haatik, esparru horretakoak ditugu honakoak: Inurritza aldeko (Zarautz) eta Gaztelugatxeko San Joango *biotopo babestuak* eta 4 *zuhaitz berezi*, Aizarnazabalen (arteak), Getarian (artelatza) eta Donostian (arteak eta haritz kanduduna) ditugunak.

Espazio Natural Babestuen Sarea osatzen duten espazioez gain, nabarmentzekoak dira antolatze berriazko agiriak eta, horrenbestez, erabilerak eta jarduerak arautzeko araudiak dituzten zonak. Horixe dugu Urdaibai itsasadarraren (hori dagoeneko aipatu dugu) eta Txingudiko badiaren kasua.

Txingudiko itsasadarreko baliabide naturalen balio handia dela eta, Txingudi aldeko (Gipuzkoa) Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatzeako Plan Berezia idatzi zen, eta hori 1994ko uztailearen 29an onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak behin betiko, Irungo udalerrirako. Hondarribiko udalerriri dagokion zatian, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak 2001eko irailaren 26an onartu zuen behin betiko.

Halaber, itsasertzekeo lurraldeak kultur eta natur ondare baliotsua dutela-eta garrantzi handikoak diren ekosistema ugari biltzen ditu bere baitan. Hezeguneak ditugu horiek.

Zona horiek duten garrantzi handia eta egun bizi duten mehatxu-egoera aitortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek hezeguneak hainbat agiriren bidez antolatzea aurreikusi dute. Horien artean aipatzekoa da Inguru Hezeak Babestu eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana. LAP horrek antolatzekeo egindako proposamenen garapen-mailaren arabera, inguru hezeak hiru multzotan sailkatu dira. Hiru multzo horietako bik itsasertzekeo inguruak hartzen dituzte barne. I multzoa, espazio natural babestuen plangintzak antolatutako zonak biltzen dituena, eta II multzoa, bere baitan bi multzo dituena: Txingudi (hiri-plangintza bereziak antolatzen duena) eta LAPak berariaz antolatutako 21 inguru heze biltzen dituena. Horien arteko 8 ditugu itsasertzekeo esparruan, honakoak, hain zuzen ere:

- Barbadunen itsasadarra (Pobeña eta La Arena hondartza)
- Butroeren itsasadarra (Plentzia)
- Learen itsasadarra (Lekeitio)
- Artibairen itsasadarra (Ondarroa)
- Debaren itsasadarra
- Urolaren itsasadarra (Zumaia)
- Inurritzaren itsasadarra (Zarautz), biotopo babestu deklaratu gabeko eta horren babes-zonan barne hartu gabeko esparruan
- Oriaren itsasadarra

Egindako hainbat azterlanen baitan balioetsitakoari jarraiki, aparteko balioa ematen zaio Urdaibaiko itsasadarrari —dagoeneko esan bezala—. Plentziako itsasadarrari ere balio handia ematen zaio, Txingudikoaren pare. Barbadun, Lea, Oria eta Zumaiako itsasadarrek balio onargarria dute, eta azkenik, Zarautz, Deba eta Artibaikoek balio murriztua. Hala eta guztiz ere, azken horiek garrantzi handia dute, are gehiago kontuan hartzen badugu espazio horiek arraroak direla, inguru heze horiek, handi nahiz txiki, elkarren mendekoen sarea osatzen dutelako eta, hori dela eta, horietako bat narriatzeak edo suntsitzeak guztiek osatutako sisteman duelako eragina, ezinbestean. Hori gaur egungo ezaugarrien sailkapen deskriptiboa baino ez da. Ziurrenik gune txiki horien kontserbazioari arreta handiagoa eskaini beharko diogu, kasu honetan ez bezala, beste espazio batzuk babesteko premia beren gain hartu baitute dagoeneko gizarteak eta erakundeek.

Amaitzeko, bereziki azpimarratuko ditugu aurreko pasarteetan adierazitako figuren bidez babestu ez diren arren balio nabarmena duten zenbait espazio. Balio horrek sarbide zaila izatearekin du zerikusia askotan, eta horrek babes eraginkorra eskatzen du, etorkizuneko presioak saihestu ahal izateko.

Oro har, naturgune horiek Espazio Naturalen Katalogo Irekiak hartzen ditu bere baitan, beren baliabide naturalen berezitasuna eta kontserbazio-maila dela eta. Hona hemen:

- Villano lurmuturraren eremua

- Gaztelugatxeko San Joanen eremua (biotopo babestutzat deklaraturata dago)
- Ogoñotik Matxixakorako itsasertzeko arkua
- Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea eta itsaslabarrak
- Jaizkibelgo itsaslabarrak eta mendia

3.1.8 Natura 2000 sarea

Natura 2000 sarea Europako sare ekologikoa da, eta 43/92 Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna eta flora basatia kontserbatzeari buruzkoa, du sorburu. Sarearen helburua da zenbait habitat-mota eta intereseko zenbait animalia- eta landare-espezie eta/edo horien banaketa naturaleko habitatak kontserbatzen lagunduko duen egoerari eusten zaiola edo, hala badagokio, hori berriz ezartzen dela ziurtatzea.

Aipatutako "habitat zuzentaruaren" babesean deklaraturako espazioak, **Kontserbazio Bereziko Eremu** izenekoak, nahiz 79/409/EEE zuzentaruaren, hegazti basatiak eta horien habitatak kontserbatzeari buruzkoaren, babesean sailkatutakoak, **Hegaztien Babes Bereziko Eremuak (HBBE)**, hartzen ditu bere baitan.

Eusko Jaurlaritzak, 2003ko ekainaren 10eko Erabakian, Interes Komunitarioko Tokien (IKT) Estatuko zerrendan 52 toki eta, Hegaztien Babes Bereziko Eremu gisa (HBBE), 5 espazio gehiago barne hartzea proposatzen zuen.

Euskal proposamenak interes komunitarioko habitat natural guztiak eta mehatxupearan diren espezieen habitatak nahikoa ordezkatzen dituzten eremuak hartzen ditu bere baitan. Hori dela eta, betetzen ditu Natura 2000 sarea osatzeko funtsezko diren eskakizunak.

Proposamenean, guztira 107.500 ha jasotzen dira IKTetan sartzeko, eta 11.963 ha HBBE gisa izendatzeko, bi babes-figura horiek gainjartzen direneko zonez gain (27.325 ha). Azalera horiek, guztira, EAEn azaleraren % 20,31 dira.

Itsasertzeko esparrua barne hartzen duen eskualde biogeografiko atlantikoari dagokionez, IKT zerrenda 2004ko abenduaren 7ko erabakiaren bidez onartu da.

Itsasertzeko esparruan honako HBBEak daude:

- ES0000144 Urdaibaiko itsasadarra
- ES0000243 Txingudi

Baita honako IKTak ere:

- ES2120001 Arno
- ES2120004 Urolaren itsasadarra
- ES2120007 Garate-San Barbara
- ES2120009 Inurritza
- ES2120010 Oriaren itsasadarra
- ES2120014 Ulia
- ES2120016 Aiako Harria
- ES2120017 Jaizkibel
- ES2120018 Txingudi-Bidasoa
- ES2130003 Barbadunen itsasadarra
- ES2130004 Astondoko dunak
- ES2130005 Gaztelugatxeko San Joan
- ES2130006 Urdaibaiko ibai-sarea
- ES2130007 Urdaibaiko itsasertzeko zonak eta padurak
- ES2130008 Urdaibaiko artadi kantauriarrak
- ES2130010 Lea ibaia
- ES2130011 Artibai ibaia

Natura 2000 sareari dagokionez, azpimarratzekoa da barne hartutako zonen babesa garatzeko tresnarik ez dela. Hori dela eta, zerrenda horretan egoteak ez du esan nahi horien kontserbazioa bermatuta dagoenik.

3.1.9 Kalte errazeko zonak

Honakoak dira LAP honek aintzat hartutako itsasertzaren esparruko kalte errazeko zonak (kalte errazeko zona LAAetan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Legean, isurketei buruzko Zuzentarauan eta Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta erkidego arteko arroetako eremu sentikorrek izendatzen dituen irailaren 7ko 168/2004 Dekretuan jasotako adieran ulertuta):

1.- Espazio Naturalen Sareko espazio natural babestuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen arabera babestuta. 2.8.2.1. epigrafean

adierazten dira, baita Informazio Memorian ere (Ingurune Biofisikoa), eta horien espazio-mugak 1 : 10.000ko informazio-mapan zehaztuta daude.

- * Urdaibaiko Biosferaren Erreserba
- * Inurritzako biotopo babestua
- * Gaztelugatxeko San Joango biotopo babestua

2.- Balio aitortua duten eremuak (onartutako antolamenduko dokumentuak edukita), eta, beraz, erabilerak eta jarduerak arautzeko araudia dutenak.

- * Txingudi

3.- Inguru Hezeen LAPak antolatutako espazioak:

- * Barbadunen itsasadarra
- * Butroiren itsasadarra
- * Learen itsasadarra
- * Debaren itsasadarra
- * Urolaren itsasadarra
- * Oriaren itsasadarra

4. Natura 2000 sarerako proposamenean bildutako espazioak

5. Espazio naturalen katalogo irekian, horien berezitasunagatik, bildutako tokiak:

- * Villano lurmuturra
- * Ogoñotik Matxixakorainoko kostaldeko arkua
- * Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea
- * Jaizkibel mendia eta itsaslabarrak

6. Aurreko puntuetan jada adierazitakoekin bat ez datozen eremuak, betiere LAP honen kontserbaziorako balio-mapan eta bere aplikazio-esparruan ondorengo balioak badituzte:

- a) Lehorreko ingurunerako balio oso handia
- b) Itsas ingurunerako balio apartekoa edo nabarmena

4 ITSAS INGURUNEA

4.1.1 Itsasertzeko uren eta jalkinen kalitatearen egoera orokorra: estuarioetako eta kostaldeko ura eta jalkinak

Dagoeneko adierazi ditugun baldintzatzaileak eta mugak izan badiren arren kostaldeko eta estuarioetako uren kalitateari indizeak edo mailak esleitzeko, eskura dugun informazioak aukera ematen digu uraren kalitateari hainbat balio esleitzeko bere egoera orokorraren eta erabileren arabera, baita horiek saneamendu-planak abian jarri ostean zenbateraino leheneratu diren kontuan izanda ere.

4.1.1.1 Uraren kalitatea

Honekin batera doazen irudietan islatu dugu itsasertzeko uraren kalitatea. Irudi hori *Euskal Herriko uren kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sareko* laginketa-estazioek (1995eko udazkena-1996ko uda arteko aldia) emandako datuen interpretazioari dagokio.

a) Estuario-sistemak. Oiartzun (Gipuzkoan) eta Nerbioi (Bizkaian) ibaien estuarioak dira uren kalitatearen inguruko arazo gehien dituzten estuario-sistemak.

Uren kalitatearen inguruko ohiko eta askotariko arazoak dituzte, halaber, Deba, Urola eta Bidasoa ibaien estuarioek Gipuzkoan, eta Barbadun eta Artibai ibaienek Bizkaian.

Arazoak ez dira hain ohikoak Urumea eta Oria ibaietan, Gipuzkoan, eta Lea, Oka eta Butoi ibaietan, Bizkaian.

b) Kostaldeko zerrenda. Arroen garrantziari, estuarioetako materialak esportatzeko ereduari eta kalitate orokorrari begira, Gipuzkoako **kostaldeko zerrendako urek** Bizkaiko kostaldekoek baino arrisku handiagoa dute kalitate txikiko ura izateko.

Horien artean nabarmen bereizten dira bi sektore, Villano lurmuturretik ekialdera eta mendebaldera. Mendebaldeko sektoreak Nerbioi eta Barbadun ibaien bokaleen eragin handiagoa du, eta bertan dute urek kalitaterik txikiena eta bertan dute arrisku potentzialik handiena.

Haatik, kostaldeko uren kalitatearen indize orokorra (bokaleetatik hurbilen direnak barne hartuta) *kutsatu gabearen* eta *zertxobait kutsatuaren* artekoa da, izan ere, mailakatzeko horretan estuarioek ia beti izaten dute *kutsatutzat* jotzen dituen indizeren bat, horiek *kutsatutzat* jo baititzaizkete, baita oso *kutsatutzat* ere. Oro har, hurbileko itsasertzeko ingurune honetako urak dinamikari, ziklo orokorrei eta prozesu biologikoei dagokienez oso gutxi aldatutako sistemen baitan daude. Horretan salbuespen esanguratsuenak

Pasaiako portuko bokalaren inguruko zona eta Monpaseko hodi biltzailearen ingurua lirateke.

c) Plataforma. Konparazio-bide berari jarraituz, plataformako uren kalitatea eta, oro har, bokaleetatik urrunen diren zonena edo zuzeneko emariena **bikaina** dela esan dezakegu. Horrek ez du esan nahi ez dagoenik inolako jatorritako kutsatzailerik. Kalitatearen mailakatzeko bertikala ere proposa liteke, baina ur hauetan, baita lur gainekoetan ere, ia elementu guztien kontzentrazioak ur-masen ziklo naturalen eta dinamika orokorraren mendekoak dira.

Dagoeneko adierazi dugunez, ezin da alde batera utzi oinarrizko balioen arabera esanguratsuak diren kutsatzaile edo mikro-kutsatzaileek eremu ozeaniko irekietan duten presentzia, baina izan daitezkeen kontzentrazio-mailak, estuarioetako eta kostaldeko uren artean mailak bereiz ditzaketen ohiko kontroletan erabil daitezkeen metodoek hautematen dituzten mailak baino askoz beherago egongo lirateke.

d) Hondartzak. Oro har, deskribatutako egoera bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko hondartzen osasun-azterketak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiten duenak, islatzen duenarekin. Eskura ditugun datuen arabera, kostaldeko hondartzak kalitate ona dute bainua hartzeko (Sopelana, Bakio, Aritxatxu, Laga, Itzurun, Getaria eta Kontxa). Kalitatea, aldiz, onargarria da estuarioen kanpoaldean daudenetan (La Arena Muskizen, Plentzia-Gorliz, Laida-Laidatxu Mundakan, Ea, Lekeitio, Mutriku, Antilla Orion eta Hondarribia). Kalitate txarra dute estuarioen barnealdean edo arazo bereziak dituzten estuarioen kanpoaldean daudenek (Getxo, Sukarrieta, Ondarroa-Saturrarán, Deba, Santiago Zumaian eta Oribarzar Orion). Kasu mistoen artean ditugu Zarauzko hondartza eta Zurriola hondartza, kalitate txarra baitute ekialdean (emari kutsatzaileak Inurritza erretenean eta Monpaseko hodi biltzailean), baina onargarria gainerako zatian.

4.1.1.2 Jalkinen kalitatea

Itsasertzeko zonako **jalkinen** kalitatea, substantzia kutsagarrien edukiaren arabera eta, horrenbestez, berezkoak dituzten komunitateak hartzeko ahalmenaren arabera ulertuta, ibai-sistemek garraiatutako materialen eraginaren mendekoa da neurri handi batean.

Hala, industria-jarduera bizia eta giza ezarpen handia duten eta behar adinako arazketa-sistematik ez duten arroek (Euskal Autonomia Erkidegoko ia guztiek) substantzia kutsagarrien isuri ugari dute. Isuri horiek ibaietara doaz, eta, azkenean estuarioetara eta itsasora. Hala eta guztiz, gogoan izan behar da arroaren litologiak berak jalkinetan metal jakin batzuen kontzentrazio handiak sorraz ditzaketela (hondo geokimikoa); baina horrek ez dakar kutsadurarik.

a) Estuarioak. Gaur egun ia ez dago estuario "garbirik". Neurri batean edo bestean, guztiak daude kutsatuta. Hala ere, kutsadura ez da sistema horiek jasotzen dituzten isuri ugarietara erreparatuz gero espero zitekeena bezain handia. Marearen etengabeko geraldien eta beheraldien ondorio da hori. Izan ere, estuarioetan uren berritze-tasa oso handia da. Horrek murriztu egiten du isurien eragina, baina kutsatzaileak itsasorantz garraiatzea dakar.

Jalkinen kalitatea Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan aldatu egiten da nabarmen sistema batzuetatik besteetara, eta, horien barruan, zona batzuetatik besteetara. Kontuan hartu behar da substantzia kutsatzaile ugari, esaterako metal astunak, tamaina txikiko materialei (lohiak eta buztinak) lotu ohi dela. Hortaz, desberdintasunen alde handi bat jalkinen ezaugarri granulometrikoen ondoriozkoa izan daiteke.

Euskal Herriko uren kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarearen kanpainetan lortutako emaitzen arabera, esan daiteke metal astunekin gehien kutsatutako estuarioak Nerbioi (Bilbaoko itsasadarra), Deba eta Oiartzun (Pasaiako portua) ibaienak direla. Horietako batzuetan kutsadura handia dago (hainbat zuzentarau eta herrialdetan kalitate-estandartzat hartutako erreferentziatzko balioak kontuan hartuta).

Konposatu organikoen bidez kutsatutako jalkinei dagokienez, estuario kutsatuenak Nerbio eta Urola ibaienak dira, nahiz eta ez diren kutsadura-maila handietara iristen.

Jalkinen kutsaduran denboraren araberako joerak zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa da jarraipena denbora-tarte luze samarrean egitea. Hori dela eta, Nerbioi eta Barbadun ibaien estuarioen kasuan bakarrik ditugu joera horiek balioetsi ahal izateko nahikoa datu. Barbadunen estuarioan ez da joera garbirik hauteman, bai ordea Nerbioienaren kasuan, izan ere, Nerbioien estuarioaren zatirik handiengan joera beherakorra da, ziurrenik zenbait industria kutsatzaile ixtearen ondorioz eta eskualdean azkeneko urteetan gauzatutako saneamendu-planaren eraginez.

b) Kostaldeko zerrenda. Kostaldeak kutsaduraren askoz ere eragin txikiagoa du estuarioek baino. Hala ere, uren hodi biltzaileetatik eta itsaspeko hustubideetatik gertu dauden gune batzuetan nolabaiteko kutsadura ageri da.

4.1.2 Saneamenduaren eta hondakin-uren arazketaren inguruko jardunak

4.1.2.1 Saneamenduan eta arazketan esku hartzeko politikak

Uren kalitatearen egoera orokorrari buruz jardun ondoren, kutsaduraren eragina arintzeko edo leuntzeko egiten ari diren esku hartzeko prozesuak zehaztuko ditugu ondoren. Hori funtsezkoa da uren kalitateak, itsasoan nahiz estuarioetan, etorkizunean izango duen joera ebaluatzen saiatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde kantauriarreko arroetan saneamendu-planak ari dira egiten, zuzeneko isurketak saihesteko eta hondakin uren araztegiak (HUA) martxan jartzeko helburuarekin. Oro har baieztatu dezakegu itsasertzeko ia udalerrri edo mankomunitate guztiak ari direla gauzatzen beren saneamendu-plana.

Jardun horiei esker eta itsasadarren ertzetan kokatutako instalazioetako batzuen industria-jarduera etetearen ondorioz, oso narriatuta zeuden estuarioetako batzuk pixkanaka leheneratzea lortu da. Horixe dugu Nerbioi eta Oiartzunen kasua, baita neurri txikiagoan bada ere, Debarena ere.

Hala, Bilbao eta Pasaiako itsasadarretako barne-lokaztiak, historian zehar hiri- eta industria-isurketak direla eta narriatutako zonek, leheneratzeko ahalmen handia dute, eta hori hasi da dagoeneko agerian gelditzen, bertako saneamendu-planen lehen faseak gauzatu ondoren.

Narriatutako barnealdeko beste zona batzuetan leheneratzeko ahalmena mugatua da, txikiak direlako.

Urumeako itsasadarreko barne-lokaztiaren kasuan, ingurumen-kalitate eskasa da eta, tamaina txikia duenez, leheneratzeko ahalmen mugatua du. Interes nagusia itsasoaren eta ibaiaren arteko trantsizioegune izatearena da. Ibaiak bete-betean hedatzen ari den ahalmen biologikoa du. Horren erakusgarri da duela gutxi izokina sartu izana.

Arazoa larriagoa da Deba eta Artibairena bezalako estuarioetan, horietan kalitatea oso txarra delako eta leheneratzeko oso ahalmen txikia dutelako, hain zuzen ere, beren tamaina txikia delako.

LAP honen informazio-memoria biltzen duen I. liburukiko 3.2.2.4 atalean zehatz-mehatz zerrendatu dugu zein den saneamenduek egun duten egoera itsasertzeko udalerrietako bakoitzean.

4.1.3 Agregakinen erauzketa eta dragatzeak

Itsasertzeko zenbait zonatan dragatzeak egiten dira, eraikuntzarako bitartekoak lortzeko xedearekin.

Nabarmen ditzakegun jardunik garrantzitsuenen artean ditugu Bidasoa eta Oria ibaien itsasadarretako barne-lokaztietako eta Bakio eta Muskizko hareatzetako erauzketak.

Jardun horien artean garrantzi berezia dute Bidasoa ibaiaren itsasadarreko erauzketek, Txingudi inguruak duen balio handia dela eta.

Barnealdeko zonak dragatzearen ondorioz, batez ere portu-zonak dragatzearen ondorioz, material solidoak isurtzen dira kostaldetik hurbil.

Isurketa horiek ondorengo zonetan hauteman dira: Jaizkibel/Uliako kanpo-hareatza, Sagustan hareatza, Ondarroa eta Lekeitio artean (zona horren ekialdean Ondarroa eta Lekeitio portuetan dragatutako materialak isuri dira), Elantxobe/Matxitxakoko hareatza eta Bilbaoko kanpo-hareatza.

Jarduera horien arteko isurketarik nabarmenenak Jaizkibel eta Elantxobe/Matxitxakon egindakoak dira, oraingoan ere bertako itsas inguruneke unitateen kontserbaziorako interesa dela medio.

4.1.4 Itsas ingurunean eragina duten esku-hartzeen sintesia eta balorazioa

Diagnostikoan orain arte adierazi dugun ia guztiak zuzeneko edo zeharkako eragina du planaren xede den eremuaren baitako esparruetako bitan, alegia, itsas ingurunean (adiera hertsian ulertuta) eta estuarioetan.

Zehatz samar nahiz ez horren zehatz aipatu ditugun proiektuei erreparatuta, horiek izango duten eraginari, positibo zein negatiboari, buruzko hasierako ebaluazioa egin dezakegu, itsasertza babestea xede duen plan honen helburuak aintzat hartuta.

Bada, lurraldearen araberako lehen diagnostikoa, diagnostiko zehatz samarra, egingo dugu, oraingoan arreta itsas inguruneari eta trantsizio inguruneari eskainita. Datuak “Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan eta kostaldean egoera ekologiko egokia lortzea galarazten duten presioei eta eraginei buruzko azterketa” izeneko txosten teknikoan jaso dira, “Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea” laneko laburnen eta ondorioen liburukiaren barruan, eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideetan aurkitu dira.

4.1.4.1 Hautemandako esku hartzeak unitate fisiografikoen arabera

1. Hondarribiko itsasadarreko barne-lokaltia: estuario honen gaineko presio handienak isurien ondoriozkoak (batez ere Iparraldeko zatian, Hegoaldeko zatian ia osorik ezabatu baitira), eta zenbait arrantza- eta kirol-portuek eragindakoa dira.
2. Hondarribiko hareatza: arrantza-portua handitzea, hondartzaondoan kirol-portua (dragatutako hondarra hondartzan isuriz), eta arrainak hazteko kaiolak jartzea.
3. Jaizkibelgo itsaslabarrak: eskualdeko hondakin-urak isurtzea itsaspeko hustubide edo hodi biltzaile baten bidez (Higer).
4. Jaizkibel/Uliako kanpo-hareatza: hondartzak (Asabaratz) leheneratzeko agregakinak eraztea, dragatutako produktuak isurtzea, Donostialdeko hustubidea eta arrezife artifizialak instalatzea.
5. Pasaiako itsasadarreko barne-lokaltia: dragatzeak. Portu horrek itsas trafikoa, ontziolak, dragatzeak, bideratzeak, amarralekuak, etab. jasaten ditu, eta nabarmen narriatuta dago.
6. Uliako itsaslabarrak: itsaspeko hustubide berria eraikitzea Donostialderako, gaur egun dauden isuriak kentzea.
7. Zurriolako hareatza: kirol-portua eraikitzea Monpaseko itsaslabarraren ondoan.
8. Urumeako barne-lokaltia: ibaia dragatzea eta bideratzea, hiri- eta industria-isuri ugari (zinka barne) ibilguaren zenbait gunetan, batez ere Martutene aldean.
9. Urgulleko itsaslabarra: itsas pasealekua indartzea.
10. Kontxako hareatza: portua (kirol-kaia) handitzea eta hondartza leheneratzea.

11. Igeldoko itsaslabarrak: isuriak kentzea.
12. Orioko hareatza: agregakinak erauzte eta barnealdeko dragatzeko produktuak isurtzea.
13. Orioko itsasadarreko barne-lokazia: ibaiaren ekarpenak, paper-fabrika bat ibaian gora, arrantza-portua, amarralekuak eta aldizkako dragatzeak.
14. Mollarriko itsaslabarra: itsas pasealekua eraikitzea eta hustubideko isurketak areagotzea.
15. Zarauztik Getariarako hareatza: agregakinak erauzte eta Inurritza erretenerako isurketak etetea.
16. Zarauztik Getariarako itsaslabarrak: kirol-portua (Ubiri) eta itsas pasealekua eraikitzea.
17. Getariatik Zumaiarako itsaslabarrak: ez da jardunik jaso.
18. Zumaiako hareatza: ez da jardunik jaso.
19. Zumaiako itsasadarreko barne-lokazia: hiri- eta industria-isuri garrantzitsuak Urolan eta Narrondon, kirol-portua, amarralekuekin eta aldizkako dragatzeekin.
20. Zumaiatik Debarako itsaslabarrak: Debarako araztegia eraikitzea (Mendata) eta biotopo babestu izendatzea.
21. Debako kanpo-hareatza: hondartza leheneratzea eta dragatzeetako produktuak isurtzea.
22. Debako itsasadarreko barne-lokazia: oso bideratuta dago, industria garrantzitsua (tratamendua eta siderurgia), isuri eta ekarpen kutsatzaile ugari (metalak, etab.), batez ere ibaitik datozenak; kirol-portua eta amarralekuak.
23. Mutrikuko itsaslabarrak: portua handitzea eta akuikulturako eskola eraikitzea.
24. Saturrarango hareatza: kontserba-industrietarako hustubidea eraikitzea eta erretenerako isurketak etetea.
25. Ondarroako itsasadarreko barne-lokazia: hiri- eta industria-isuri puntualak, industria garrantzitsua, arrantza-portua eta amarralekuak, aldizkako dragatzeak.
26. Ondarroatik Lekeitiorako itsaslabarrak: Ondarroako portua handitzea.
27. Sagustago hareatza: agregakinak erauzte eta dragatzeetako produktuak isurtzea.
28. Lekeitioko barne-hareatza: portua (kirol-kaia) handitzea.
29. Lekeitioko itsasadarreko barne-lokazia: araztegiko aldi baterako isuriak, industria-jarduera txikia (ontziolak), arrantza-portua eta amarralekuak.
30. Lekeitiotik Earako itsaslabarrak: Eako araztegiko isuriak.

31. Ogellako hareatza: akuikulturako plantako isurketa areagotzea (Bedarona).
32. Eako hareatza: isuriak kentzea.
33. Elantxobetik Matxitxakorako hareatza: agregakinak erauzteak, dragatzeak isurtzea, Lagako hondartza leheneratzea, arrezife artifizialak instalatzea, akuikulturarako kaiola flotatzaileak eta arrantzarako babes-zona ezartzea.
34. Ogoñoiko itsaslabarrak: kaiola flotatzaileetarako akuikulturako instalazioa eta biotopo babestu izendatzea.
35. Izaroko itsaslabarrak: biotopo babestu izendatzea.
36. Laidako hareatza: dragatzeak, hondartza egonkortzeko dikea eraikitzea (leheneratzea) eta saneatzea.
37. Mundakako itsasadarreko barne-lokazia: araztegiko isuri puntual sarriak, ontziolako isuri puntualak, aisia-portua eta amarralekuak, ontziolako sarbideko dragatzeak.
38. Mundakatik Bermeorako itsaslabarrak: itsaspeko hustubidea eraikitzea.
39. Matxitxakoko itsaslabarrak: akuikulturako instalazioak (lehorrean).
40. Aketxe-Gaztelugatxeko itsaslabarrak: biotopo babestu izendatzea.
41. Bakioko hareatza: agregakinak erauzteak eta babes-portua eraikitzea.
42. Bakiotik Villanorako itsaslabarrak: Arminza portua handitzea, ondoko hondartza leheneratzea, arrezife artifizialak, akuikultura, Lemoizko zentral nuklearra gas likidotua lurruntzeko instalazio bihurtzea eta biotopo babestu izendatzea.
43. Plentziako hareatza: hodi biltzaileko isurketak areagotzea.
44. Plentziako itsasadarreko barne-lokazia: isuri bakanak Abanikoaren inguruan, kirol-portua eta amarralekuak, itsaski-bilketa.
45. Barrikatik Getxorako itsaslabarrak: ez da jardunik jaso.
46. Barrika eta Getxo arteko kostaldeko hareatzak: ez da jardunik jaso.
47. Bilbaoko Abrako hareatza: kanpoaldeko postua amaitzea eta zerbitzu eskaintzen hastea, eta isurketak areagotzea.
48. Bilbaoko itsasadarreko lokaztiak: estuario honek merkataritza, arrantza eta kiroleko portu handi bat barne hartzen du; ibilguak erregulatzeko egiturak, amarralekuak, ainguralekuak, seinaleak, bideratzeak, obrak, dragatzeak, dragatze-materialen isuriak, etab. ditu; mota guztietako isuri kutsatzaileak (hiriko eta industriako hondakin-urak) eta legez kanpoko itsaski-bilketa txikia.
49. Bilbaoko kanpo-hareatza: dragatzeetako produktuak isurtzea eta agregakinak erauzteak.

50. Luzero/Kobarongo itsaslabarrak: isurirako hodi biltzailea instalatzea hurbil dagoen findegirako.

51. Muskizko hareatza: ez da jardunik jaso.

52. Barbadunen estuarioko barne-lokazia: araztegiak itsasadarraren behealdean isurtzen du, marea arteko galera handia, petrolio-industria garrantzitsua (Petronor), abeltzaintza intentsiboa, legez kanpoko itsaski bilketa noizbehinka.

4.1.4.2 Jardun-mota jakin batzuen ingurumen-eraginaren balorazioa

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzaren ingurumen-egoerari buruzko balioespena jasotzen da. Honekin batera doan koadroan, ondorengo jarduera-mota generikoen eragina adierazi dugu (positiboa edo negatiboa), baita garrantziaren maila ere.

- PE. Portu-eraikuntzak (kirol-portuak barne)
- PM. Portuko mantentze-lanak (saneatzeko dragatzeak barne)
- HEL. Hondartzak (dragatzeak, harea isurtzea eta harri-lubetak barne) eta ertzak leheneratzea.
- B/B. Betelanak eta bideratzeak
- P/B. Itsas pasealekuak eta kostaldea babesteko lanak (harri-lubetak eta hormak indartzea).
- Drg. Eraikuntzarako agregakinak dragatzea
- MU. Dragatzeetako materialak uztea.
- San. Hiri- eta industria-saneamenduko instalazioak (hodi biltzaileak, araztegiak, gainezka bideak eta hustubideak)
- Hozt. Zentral termikoak hoztea.
- Ust. Arrantza- eta itsaski-ustiapena.
- AA. Arrezife artifizialak
- Akk. Akuikultura (kaiolak, haztegiak eta lehorreko instalazioak)
- Mug. Erabilera mugatuak (itsasoko erreserba edo biotopo izendatzea)
- K/A. Kirola eta aisia (itsasoari lotutako jarduerak: bainua, arrantza, urpekaritza, nabigazioa)

Unitatea	Esku-hartzea
----------	--------------

II. liburukia. Diagnostikoa

	PE.	PM.	HEL	B/B	P/B	Drg	MU	San	Ho zt.	Ust.	AA	Akk.	K/A	Mug.
Txingudiko barne-lokazia	4		+	3		1.		+		2			2.	+
Hondarribiko hareatza	2		2									1		
Jaizkibelgo itsaslabarrak								3		2				
Jaizkibel/Uliako kanpo-hareatza			1			2					1			
Pasaiaiko barne-lokazia		3		3		3		+	1					
Uliako itsaslabarrak								+						
Zurriolako hareatza	2		2					+						
Urumeako barne-lokazia				2				+						
Urgulleko itsaslabarra					1									
Kontxako hareatza	2		2										1	
Igeldoko itsaslabarrak								+		2		1		
Orioko hareatza						1								
Oriako barne-lokazia	2			2		2		+						
Mollarriko itsaslabarra					1									
Zarauzko hareatza								+			1			
Zarauzko itsaslabarrak	3				2									
Getariako itsaslabarrak											1			
Zumaiako hareatza														
Urolako barne-lokazia	2			2		1		+						
Zumaia/Debako itsaslabarrak								3			1		1.	+
Debako hareatza			2											
Debako barne-lokazia	2			2		1		+						
Mutrikuko itsaslabarrak	1											1		
Saturrarango hareatza								1						
Ondarroako barne-lokazia				2				+						
Ondarru/Lekeitioko itsaslabarrak	1													
Sagustago hareatza			1			1								
Lekeitioko barne-hareatza	2													
Lekeitioko itsasadarreko barne-lokazia				3				+				3		
Lekeitio/Eako itsaslabarrak								+						
Ogellako hareatza														
Eako hareatza								+						
Elantxobe/Matxitxakoko hareatza			1			1					1.	2		
Ogoñoiko itsaslabarra												2.		
Izaroko itsaslabarrak														
Laidako hareatza			4	3		2		2						
Urdaibaiko barne-lokazia	4			2		2		+		2			2	+

Mundaka/Bermeoko itsaslabarra							2						
Matxitxakoko itsaslabarrak											2		
Gaztelugatxeko itsaslabarrak												1	+
Bakioko hareatza	1				1								
Villanoko itsaslabarrak	1		1					1		1	1		
Plentziako hareatza							2						
Plentziako itsasadarreko barne-lokaltzia	4			1		2		+		2		1	
Sopelanako itsaslabarrak													
Sopelanako kostaldeko hareatzak													
Bilbaoko Abrako hareatza	2					3							
Bilbaoko itsasadarreko barne-lokaltzia		3				3		+					
Bilbaoko kanpo-hareatza				3			1		1				
Luzero/Kobarongo itsaslabarrak				3									
Muskizko hareatza						1							
Barbadungo barne-lokaltzia								+					

Ingurumen-eragina: + positiboa, 1 ez oso adierazgarria, 2 adierazgarria, 3 larria, 4 oso larria.

4.1.4.3 Ondorioak

Euskal itsasertzean aldea nabarmena da kostaldeko zonaren eta estuarioen zonaren artean. Izan ere, kostaldea ez dago hain narriatuta, eta estuarioak, aldiz, presio ugariaren mendeko dira: demografia, industria garrantzitsua eta portu-garapena.

Presio horien ondoriozko eragin garrantzitsuenen artean, honako hauek ditugu: aldaketa morfologikoa (bideratzeak eta marea arteko galera), hiriko eta industriako isuri kutsatzaileak, elikagaiak sartzea, eta uren eta jalkinen kutsadura.

Hona hemen egoeraren laburpena:

- Oiartzunek eta Nerbioik (barrualdean eta kanpoaldean) presio handia dute.
- Bidasoak, Urolak eta Debak neurritzko presioa dute.
- Oriak, Artibaik, Okak, Urumeak, Butroek, Barbadunek, Leak eta gainerako sektoreek presio txikia dute.

Baina biztanleriaren dentsitatea handia den arren, oraindik ere badira ondo kontserbatu diren eta balio ekologiko handia duten estuario-espazioak. Horren lekuko dira Txingudi eta Plentziako barne-eremuak. Apartekoa balioa duenik ere bada, Urdaibairen kasua esate baterako (batez ere lokaltien eremua eta, neurri txikiagoan, baita hareatza ere).

Aitzitik, egia da, halaber, narriatuen dauden eremuak portu-jarduerei lotutako estuarioetan kokatzen direla. Horixe dugu Pasaia, Bilbao edo Ondarroaren kasua. Beste batzuk hondakin-uren hodi biltzaile huts gisa erabiltzen dira edo erabili izan dira, hala nola, Deba edo Urumea. Kasu horietan, gainera, bada horien narriadura areagotu duen eta leheneratzea mugatzen duen beste arrazoi bat: ibaiak asko bideratu dira eta estuarioa atzerarazi da.

Eremu horiek narriatuta badaude ere, horietako gehienak asko lehenera litezke jardun ausart eta eraginkorraren bidez (batez ere lehenengo bien kasuan), potentzial ekologiko handia dutelako, eta Pasaia eta Bilbaoren kasuan, estuarioa oso sakona delako (horrek nahasteko, hedatzeko eta abarrerako prozesuak errazten ditu).

Kostaldeko zonak balio natural nabarmena duten eremu handiak ditu, askotan bertara iristea oso zaila izaten delako. Ezinbestekoa da horiek ere eraginkortasunez babestea, etorkizuneko presioak saiheste aldera. Horien artean ditugu honakoak: Jaizkibelgo itsaslabarrak, Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea eta itsaslabarrak, Ogoño eta Matxitxako arteko kostaldeko arku (Izaro barne), Gaztelugatxeko San Joango eremua (aurrekoaren ondokoa) eta Villano lurmuturraren eremua.

Azken aldiari saneatzeko egindako jardun jakin batzuk direla bide, pentsa dezakegu estuarioak leheneratzeko bidean aurrera egin dezakegula, baina, baita kostaldeko zonak narriatzeko bidean ere. Zehatz esateko, kostaldean hondartzak bainurako babestea helburu bakar duten saneatzeko jardunak egiteak mantso samar leheneratzen diren sistema bentonikoen ingurumen-narriadura ekar dezake berekin. Horren inguruan hautematen dugu hasiera batean aurreikusitako itsaspeko hustubideak kentzeko edo horiek hodi biltzaile huts bihurtzeko joera. Alabaina, hori oso negatibotzat jotzen dugu, isurketen arazoa gune batetik bestera lekualdatzen delako, arazoa bere osotasunean konpondu gabe.

Intereseko beste zenbait eremu ere arriskuan dira kostaldeko beste azpiegitura batzuk direla eta, batez ere portuak, bideratzeak edo itsasoko obra handiak direla eta. Jarduerak zuzenean kontrolatzeko administrazio-tresnak, Kostaldeein buruzko Legeak aurreikusitako baimenak edo ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa funtsezko dira horien ingurumen-bideragarritasuna bermatzeko, baina ez nahikoak.

Nolanahi ere, askotan naturari kanpotik "ez laguntzeak" eta naturari bere bidea egiten uzteak aukera ematen du zona jakin batzuk nahiko azkar leheneratzeko, betiere eragin jakin hori sortzen duen arrazoiak kenduta. Hala eta guztiz ere, euskal kostaldeko ekosistema esanguratsuenetako batzuk babesteko presako politika behar du, narriadurak aurrera egitea ekiditeko eta leheneratzeko oinarriak ezartzeko.

4.1.5 Interes naturalistiko berezia duten espazioen ezaugarriak eta mugatzeak

Estatuak babestutako itsasaldeko eremurik ez dagoen arren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko (MAPAko) Arrantzako Idazkaritza Nagusiak ekologiaren nahiz arrantzaren ikuspegitik lehentasunezko interesa duten zenbait eremu identifikatu zituen itsas zona babesgarriari buruzko agirian. Horiek gorde, leheneratu eta, hala badagokio, garatu beharreko eremutzat jotzen ditu. Eremu horien artean hiru jardun-mota hauek

bereizten ditu: arrezife artifizialen zonak, itsas erreserben zonak eta arrantza egokitzera zuzendutako zonak.

EAEko itsasertzean eremu ugari zehaztu dira, 12 hain zuzen. Ondoko hauek dira:

1. Arrezife artifizialen zonak:

- Armintza: Armintzako badiaren eta Bakioko lurmuturraren artean mugatua.
- Elantxobe: Elantxobe herriaren eta Apikal lurmuturraren artean mugatua.
- Deba: Debako hondartzaren eta Urola ibaiaren bokalearen artean mugatua.
- Getaria: Markobeko badiaren eta Oriaren itsasadarraren bokalearen artean mugatua.
- Pasaia: Arando lurmuturraren eta Ixkiro lurmuturraren artean mugatua.

2. Itsas erreserben zonak:

- Villanoko lurmuturra eta uhartetxoa (Bizkaia), barnealdeko uretan.
- Gaztelugatxeko San Joan, barnealdeko uretan.
- Izaro uhartea, barnealdeko uretan.
- Zumaiako marearteko zabalgunea, barnealdeko uretan.
- Izaroko itsas erreserbaren kanpoaldeko urei dagokien zatia, zehaztu gabe oraindik.

3. Kostaldea egokitzeko zonak:

- Izaro - Elantxobe.
- Deba - Zumaia.

Jardun horiek, oro har, oso positiboki baloratu behar dira, batez ere itsas erreserben deklarazioari dagokionez. Izan ere, itsas baliabideak kontserbatu eta hobetzeko eremuetan erabilera-muga batzuk ezartzen dira.

Ildo horretatik, aipatzekoa da, Eusko Jaurlaritzaren bidez bada ere, Gaztelugatxeko San Joan biotopo babestu deklaratzeko ekimena. Bai itsas ingurunean bai lehorrekoan izango du eragina. Zona hori zati handi batean bat dator itsas erreserbaren zona deklaratzeko MAPAk gomendatutakoarekin.

Arrezife artifizialak ipintzeko proposatutako jardunak positibotzat hartu behar dira, Estatuko itsasertzeko beste gune batzuetan izandako esperientziaren argitara, bai

biodibertsitatea areagotzen laguntzen dutelako, bai disuasio-neurri gisa ondorioak dituelako, arrantzako jarduera kaltegarriak, arrastea eta abar saihesteko, esate baterako.